



Apoyos
Metálicos S.A.



WINDAR

Itxiera mehatxupear

Langileak zuzendaritzarekin astelehenean elkartuko dira / 7




Hartza ahizpek Iruñeko Hartza tenplu gastronomikoa sortu zuten / 2-5

"Hemen dauden bitartean, lehendabizi ezagutu ditzagun. Baina, begirada garbitik" / 11

621 odol-emailek 1.103 odol-emate egin zituzten joan den urtean; 0+ motakoa % 41,8a / 13

Iturmendin asteartean, Irurtzunen asteazkenean hasiko dira festak / 12

Ezkurdiak eta Zabaletak Sanferminetako finalera sailkatzeko aukera dute gaur / 16



Donostiako Kubo aretoan mustu du Jose Ramon Andak bere erakusketa "osatuenan": Lantegi / 22-23



Juana Mari, Julia eta Manoli Hartza Sueskun ahizpak Altsasuko etxean.

"Gure etxean denak berdin tratatzen genituen"

JUANA MARI, JULIA ETA MARISA HARTZA HARTZA JATETXEKO NAGUSIAK

Juana Mari, Julia eta Marisa Hartza ahizpek Hartza jatetxea 1971ean ireki zuten Iruñean. Hiriburuko tenplu gastronomikoa bihurtu zen altsasuarren jatetxea

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Hartza jatetxeko mahaletan mota, ideologia, lanbide, ofizio eta zaletasun guztietako pertsonak eseri ziren: politikariak, enpresariak, toreatzaileak, Iruñeko peñetako kideak, baita erregeak ere. Baina tenplu horietako mahaiek pertsonak demokratizatzen zituzten. Altzariak baino Hartza ahizpak ziren gertuko arreta ematen zietenak. "Eta guztiak berdin tratatzen genituen". 1971ean zabaldu zuten Hartza jatetxea Iruñeko Labrit aldapako pisu batean. Ondoren, 1985ean jatetxe berria ireki zuten. Izen berberarekin eta leku berdinean. Labrit aldapak "zerbait" zuelako. Jatetxea 2008an itxi zuten, gorenearn utzi nahi zutelako. Jendez beteta zegoela agurtu ziren. Ordutik, hainbat omenaldi jaso dituzte Hartza ahizpek. Hala ere, umilak izaten jarraitzen dute: "gu omenduak, zergatik?".

Julia sukaldaria zen, Juana Maria aretoan egoten zen jankideak zaintzen, eta Manoli aretoan zein sukaldean egoten zen, platerak prestatzen laguntzen, baita bezeroekin hitz egiten ere. Gertuko tratua Hartza jatetxearen bereizgarrietako bat zen.

HASIERAK

Nola eta zergatik sortu zenuten Hartza jatetxea?

Nahiko istorio ezaguna da. Gu artzainak ginen, ardiak genituen. Baina aita hil zen eta Altsasun garai horretan ez zegoen emakumeendako lanik. Ezta gizonendako ere. Hemengo larreak ez ziren oso handiak eta gu oso gazteak ginen. Orduan, lan egitera kanpora joatea erabaki genuen. Ostalaritzan lanean hasi ginen. Eta horrela ikasi genuen. Ostalaritzan lanean hasi zineten, eta saltoa ematea erabaki zenuten.

"GOI MAILAKO JATETXEETAN LAN EGIN GENUEN, ETA HOR IKASI GENUEN DENA"

Arrazoi pertsonalengatik Iruñean zerbait jarri behar genuen, eta ostalaritzan esperientzia genuenez, jatetxe bat jartzea erabaki genuen. Hasieran lekualdatze bat hartu genuen, asko ez estutzeko. Izan ere, gauza bat da ostalaritzan lan egitea eta beste gauza bat jatetxe bat kudeatzea. Horregatik hasieran lekualdatzea hartu genuen. Pisu bat zen, pentsoia. Baina hori laster txiki gelditu zitzaigun. Lehenengo egunetik lanean hasi ginen. Ezagun asko etortzen ziren. Pilotaren eta txirrindularen munduko jendea ezagutzen genuen, eta etortzen ziren. Nolakoak ziren, gainera. A ze egunak pasaraztea eragiten ziguten!

Lanean hartutako esperientzia horrek jatetxea sortzeko lagundu zizuen. Baina abentura bat izan zen ere, ez?

Urte luzez egon ginen lanean ostalaritzan, leku oso ospetsuetan. Juana Mari eta Julia Beasaingo Gazteluan egon ziren. Punta-puntako jatetxea zen. Garai horretan bidaiari eta turista asko pasatzen ziren hortik eta Altsasuko N1 errepidetik ere. Zelai kaletik pasatzen ziren. Europako jende asko pasatzen zen hemen. Gainera, turismo oso ona zen. Manoli, aldiz, Iparralden egon zen, Donibane Lohitzuneren ondoan. Kalitate handiko jate-txeetara ohitu ginen. Hoberen-tarikoetara. Eta horregatik ideia hori geneukan buruan. Lagun bati esan genion leku politen bat topatzen bazuen abisatzeko, eta 12 urtez egon ginen hor. Ondoren, ondoan, jatetxe berria ireki genuen.

Autodidaktak izan zarete, beraz.

Julia aurretik sukaldaria izan zen Beasaingo Gazteluan. Inoiz ez dugu sukaldaritza ikastarorik egin, eta ez da ezta ere gurekin inor erakusten egon. Gu ginen. **Hasieratik onak izan zineten, eta ospea lortu zenuten.**

Bai, hasieratik. Ezin gara kexatu. Batzuetan gehiegi izaten genuen; larrituta egoten ginen. Laster gida batetik etorri ziren eta jatetxearen inguruko artikululu bat idatzi zuten.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Etxe pasiboetarako egokia

Isolamendu nukleo indartsua

Beirak lehorrean jarrita

Aparteko azala koloreztatua

Zergatik ireki zenuten jatetxea Labriten? Kasualitatea izan zen?

Lekualdatze bat bilatzen geundenean pentsio hori aurkitu genuen. Lekua gustatzen zitzai- gun hor pilota zegoelako ere, eta zonaldea. Ohitu ginen eta hor eroso sentitzen ginen. Alde Zaharra asko gustatzen zaigu. Garai horretan Iruñeko zenbait auzotan jatetxeak, tabernak eta diskote- kak irekitzen hasi ziren. Orain ia guztiak itxiak daude. Gu Donibanan bizi ginen. Baina buel- taka aritu behar ginen eta ez zitzaigun gustatzen. Alde Zahar- rrerantz joaten ginen. Herri giroa du.

Zergatik uste duzue egin zela Har- tza hain famatua?

Denagatik. Kalitatea, gure estiloa eta errespetua. Nobedade asko ekarri genituen ere. Las Pocho- las-eko jatetxekoek ere oso su- kalde ona zuten, oso janari ona. Gure jatetxea xumea zen. Arrai- nak asko lantzen genituen, eta beti hoberena eskaintzen genuen. Jatetxe berrira aldatu ginenean, gure sukaldea ere aldatu genuen pixka bat. Beste plater batzuk egiten hasi ginen, sofistikatu- goak eta berriagoak, gu ginena aldatu gabe. Egiten genituen opor- bakarrak ez ziren opor-ak: jate- txetara egiten genituen bidaiak ziren. Parisera, Milanera, Kosta Urdinera, Bartzelonara, Madri- lera eta abarrera joaten ginen hiru egunez eta bertako jatetxe- tara jatera joaten ginen. Gure platerak egiteko ideiak hartzen genituen. Orduan pentsatzen genuen probatu dugun hau be- ste produktu honekin egiten ba- dugu gozoa egon daiteke. Orain- dik gustatzen zaigu jatetxeetara joatea. Neguan Lapurdiko Get- ariara joan ginen eta oso deigarria iruditu zitzaigun. Mutil horrek Parisen gozogle hoberenaren saria irabazi du. Sagar oso ori- ginala eman zigun.

Horrelako momentuetan ez dizue pena ematen jatetxea ez izateak?

Adinak ez du barkatzen.

Zenbat langile izatera iritsi zineten?

Hamabi. Batzuetan errefortzua jartzen genuen ere. Kanpora lana bidaltzen genuen ere. Hamabi mahai genituen eta mahaiak zabaltzeko aukera genuen ere. Hoberena zen mahai gutxi izatea zerbitzu on bat emateko. Ez ge- nituen hitzorduak jartzen. Nahi- ko malguak ginen. Hegazkinetik etorri behar zirela eta berandua- go etorriko zirela, hegazkina hartu behar zutela eta lehenago

etortzen zirela... Menu itxi bat zen. Orduan, gutxi gora behera zer eskatuko zuten bazenekien. Asko eskaintzen duzunean...

Maitasunarekin gordetzen duzuen zerbitzurik ba al duzue?

Askoda. Jatetxearen ordua beti ona da. Pertsona batekin zinemara joan zaitezke, zinema gustuko duelako; kontzertu ba- tera joan zaitezke, musika gus- tatzen bazaio... Baina mahaiaren inguruan edonor eser daiteke. Horregatik oso esker onekoak dira jatetxeak. Ostalaritzan dena da esker onekoa, baina jatetxeak gehiago.

Eta momentu txarraren bat?

Ez dugu atsekaberik izan. Agian bezeroei baten bat eman diegu. Jendeak kalean ikusten gaitue- nean poza adierazten duela dio- te. Pairamen handia izan dugu ere. Leku askotara joaten zara eta tratua ez da guztiz ona. Adei- tasunez tratatzen zaituzte, baina plateraren osagaiak kontatzen dizute, memoriak ikasi dutena. Guk ez genien ezer esaten, gal- detzen baziguten nola eginga ze- goen esaten genien. Tratua askoz naturalagoa zen. Gure etxera edonor sartzen zen, eta bezeroa- rekin genuen tratua oso natura- la zen. Prezioarekin ez genuen arazorik, ez zen merkea, baina jendeak kalitatea ordaintzen zuen, eta bazekien zertara zihoan.

OSPEA

Hasieratik ospetsuak egin zineten, baina 1982an Michelin Izar bat jaso zenuten. Nola hartu zenuten erre- konozimendu hori?

Harrituta. Jendeak zoriontzen gintuen eta guk zergatik galdetzen genien. Duela gutxi sukaldari batekin hitz egin genuen eta esan zigun hiru Michelin Izar platera prestatzen dakiela. Baina gure- tako ez zen zer bait hain berezia. Gu bezeroen arretaz arduratzen ginen, jatetxeak aurrera egin zezan begiratzen genuen. Gure- tik jende asko pasatu da. Jende oso garrantzitsua. Behin urtero bezala Santa Agedako koroak etorri ziren eta ardoa eta pintxoak ematen genien. Kasualitatez egun horretan politikari oso garran- tzitsu bat etorri zen, eta bere bizkartzainak larrituta zeuden ea nork defendatuko zuen kez- karekin ikusten zutelako. Guk! esan genien. Gure etxean geun- den. Hurrengo urtean, jatetxea momentu hoberenean zegoenean, galdu genuen Izarra. Pena bat izan zen.



Jatetxe berria irekitzea erabaki zenuten.

1984an obretan zegoen eta 1985ean ireki genuen. Garai horretan zonalde horretan droga zegoen eta nahiko gaizki zegoen. Obrak egiten ari ginela mehatxuak jaso genituen. Eta Manolik atentatu bat jaso zuen. Ultraeskuinetik zetorren. Esan ziguten molestatzten genuela. Handik alde egitea nahi zutela. Baina guk zer egin dugu ba? galdetzen genuen. Eta esan ziguten euskara aldarrikatzen genuela...

Baina ez zenituzten aldarrikapen publikoak egiten.

Ez. Inolaz ere ez. Baina jendea- rekin hitz egin genuen. Ea euskaldunak ginen galdetzen ziguten, eta guk baietz erantzuten genuen. Horrela sentitzen genuen, zer erantzun behar genuen? Orduan, Eibarkoak edo Tolosakoak gine- la esaten zuten. Nafarra eta eus- kalduna izatea ezin zen. Esan bagenu gipuzkoarrak ginela, ez genukeen arazorik izango. Uler- tuko zuten. Guk ez genituen gaiak ateratzen, bezeroak ziren gaiak ateratzen zituztenak. Eta guk erantzuten genien.

1985ean jatetxe berria mustu, eta aurrera egin zenuten.

Guztira 39 urte egon ginen jate- txean. Oso jatetxe polita egin ziguten. Horren ondoren jende batzuk joateari utzi zioten, beste batzuk sentitzen zutela esan zi- guten... Baina pixkanaka jendea itzultzen hasi zen. Jende asko etortzen zen. Ateratzeko moduak aldatu dira. Orain, agian, sanfer- minetan, jende ospetsua elkar- teetara joaten da bazkaltzera. Lehen jatetxeetara joaten zen. Gainera, dirua orain beste gauza batzuetan gastatzen da: telefono mugikorrak, bidaiak, kotxeak... Lehen ez zen hainbeste bidaiatzen, eta jendea jatetxeetara joaten zen. **Jatetxearen ospearen kontziente zineten?**

Gu umilak izaten jarraitzen ge- nuen. Ezin zen beste modu bate- ra izan. Gure izateko modua zen. Horrelakoak ginen. Jendeari, gainera, ez litzaioke gustatuko "bai, jauna" tratatzea. Guk ger- tuko harremana eskaintzen ge- nuen. Eta berdín zitzaigun nor zen. Espainiako Erregearen me- dikua askotan etortzen zen, eta behin berarekin etorriko zela esan zigun. Eta normal tratatu genuen, beste bat bezala.

Ez zenuten ospetsuak izateko as- morik. Michelin Izar bat irabazi zenuten, Iruñeko jatetxe ospetsue-



Hartza ahizpak 1990eko Telva aldizkarian ateratako argazkia. TELVA - ROSI UGARTE ETA CAROLA BEAMONTE



Hartza jatetxearen sarrera eta jantokia. UTZITAKOA

netariko bat altxatu zenuten, hirian oso ospetsuak zineten... baina bes- te chef batzuk ospe handia lortu zuten bitartean, zuek mass media- ren oharkabea pasatu zineten.

Bartzelonatik, Madriletik eta Frantziatik plater bat egiten era- kustera gonbidatu gintuzten. Talde garrantzitsu batek deitu zigun. Guk esan genuen ezin ge- nuela gure etxea bakarrik utzi horrelako zerbaitengatik. Chef guzti hauek talde handi bat dute atzean, eta haiek hemendik hona egoten dira. Gainera, orain tele- bistan sukaldaritza saio asko daude, eta ikusten ditugunean, "benetan sukaldatzea gustatzen zaie?" pentsatzen dugu.

Baina era guztietako bezeroak izan zenituzten.

Denetarik etortzen zen. Kolore guztietako jendea. Enpresariak bezeroekin, laborategietako jen- dea, klinikakoa, eraikuntzako jendea, peñetako kideak, gaiteroak ere etortzen ziren eta lagunak ziren. Iruñeko Udalari eskatu zioten gure jatetxetik pasatzeko eta koadro bat oparitu ziguten: "eman diguzuen salda guztienga- tik". Santiago bidea egiten zute- nak ere pasatzen ziren. Eskaleak direla dirudi, baina hoteletara joaten zen jendea gero prestatzen zen eta ongi jatera joaten zen. Esaterako, Bulgariako Kyril edo Persiako sultanaren ahizpa etorri ziren Santiago bidea egiten ari zirela. Ez dakit nola egin zuten bidea, baina Iruñetik pasa ziren. **Iruñean estimatuak zineten, ez?** Estimatuak eta gorrotatuak. De- netarik zegoen.

GASTRONOMIA NAFARRA Nolakoa zen zuen sukaldea?

Denetarik eskaintzen genuen. Barazkiak, mariskoak, mota guz- tietako perretxikoak... Nobedade guztiak genituen, eta autore su- kaldaritza ere bazen. Jatetxe batean zerbait probatzen genuen eta komentatzen genuen produk- tu horrekin ez zegoela oso ongi eta zergatik ez genuen beste pro- duktu honekin frogatzen. Esate- rako, patata trufarekin egiten genuen, izugarria zen; kalabazin loreak ere prestatzen genituen: krepeak barazkiekin ere egiten genituen, eta, hori, adibidez, ongi gelditu zitekeela pentsatu genuen, eta egin genuen; arraina hainbat modutara prestatzen genuen ere... Inork ez zeuzkan gauzak geneuz- kan guk. Gero gerta zitekeen eta gure artean komentatzen genuen zerbaitek ez zuela oso harrera

ona izan, jendeak ez zuela oso gustukoa izan, eta kentzen genuen. Baziren ere beti berdina eskatzen zutenak eta ez zutenak aldatu nahi. Jatetxearekin bat ez zetozen gauzak ere bagenituen: maskurrak esaterako. Baina azkenean egunero etortzen den bezero batek eskatzen badizu, egiten duzu. Garrantzia ematen genion produktuari, lehengaiari. Nafarroako produktuak ziren beti.

Beraz, lehengaiak zen garrantzitsuenak.

Bai. Horrekin jokatzeko genuen. Olioak, ardoa, foie, trufa... Gaur egun ere Nafarroako produktuak defendatzen ditugu. Noski, arraina ezin zen Nafarroakoa izan. Hala ere, Beran arrantzatutako lehenengo izokina erosten omen genuen. Garesti, gainera. Baina, bestela, arrainak Kantauri itsasokoak ziren.

Nola ikusten duzue gaur egungo goi mailako edo autore sukaldaritza?

Garai bakoitzak berea dauka. Uste dugu generoa lantzen duten jatetxe gehiago behar direla. Garrantzitsuena da herrialde bakoitzeko lehengaiak erabiltzea. Pixkanaka berriz herrialdearen produktuari balioa ematen hasi dira. Adibidez, guk ehizaki asko egiten genuen eta Juliari ehiza lantzea asko gustatzen zitzaion. Modu tradizionala zen. Orain oso zaila da jatetxe bat aurkitzea ehi-za ongi egiten duena. Oilagor bat, adibidez, zatikatzen dizute eta izter txiki bat ematen dizute, lehorra dago... Gustura jaten duzu, baina zerbait falta zaio. Berritu ala hil esaten dute. Nafarroan oso sukaldaritza ona dago. Tuteran oso jatetxe onak daude beste inon prestatzen ez dituzten alkaxofak prestatzen dituzte edo krepeak zerbarekin. Aldiz, ospe guztia Gipuzkoak eraman du.

SANFERMINAK

Sanferminak urteko garai hoberena zen?

Jendeak ez du sinisten, baina ez zen garairik hoberena. Garaiaren arabera da. Batzuetan oso ongi joaten zen, beste batzuetan ez. Gaizki ere ez dugu esango, baina dena hankaz gora jartzen zuten. Jendea sanferminetan oso informala zen. Sanferminak zirela kontuan hartzen genuen, eta 13:00etarako ez direla etorriko badakizu. Baina 14:00ak pasatzen ziren, 15:00ak... Eta jendea ez zen agertzen. Jende asko bazkaltzeko lekuri gabe uzten genuen ustez ez geneukalako lekuri eta gero

hamabi pertsonendako mahai bat hartu zutenak, lau agertzen ziren. Falta zirenak deitu eta oheratu berri zirela esan. Jendea ez zen kontziente. Hala ere, aurretik mahaia hartu behar zen, bestela sanferminetan zaila zen mahaia aurkitzea.

Azkenean, sanferminetan errazagoa da edozer gauza jatea, ez?

Bai. Baina jendeak deitzen zuen ere. Gurera etorri nahi zuenak bazekien deitu behar zuela, eta hoteletatik ere deitzen ziguten.

Zein zen garai hoberena?

Egia esan, urte osoa. Asteazken zehar aukera libreagoa zen eta eskaintzen genuen guztia hobe hartzen zen. Enpresatako otorduak eta izaten ziren. Turismo oso ona egoten zen. Turismo ona deitzen diogu eskaintzen genuen guztia onartzen zuen jendea zelako.

JATETXEAREN ITXIERA

Duela hamar urte baino gehiago, 2008an, Hartza jatetxea itxi zenuen. Nolakoa izan zen jatetxea ixtearen momentu hura?

Jatetxea ongi geundenean utzi behar genuela pentsatu genuen, ez genuen nahi jatetxeak gu uztea. Las Pocholas-koek urteak galdu zituzten arrazoi honengatik. Hiltzen joan ziren eta jatetxea jaisten joan zen. Pena ematen zuen. Guk jatetxea jendez beteta zegoela itxi genuen. Jendea hila-bete eta erdiko denborarekin abisatu genuen. Urtezaharrerako, urtearen azken egunean, itxiko genuela esan genien. Eta, bueno, ongi hartu zuen jendeak. Egia esan, hunkigarria eta polita izan zen. Ilobak hunkitu ziren ere. Baina ez genuen ezer berezirik egin nahi. Komunikabideak etorri ziren, baina gu beti oso lotsatiak izan gara horretarako. Gaur egun sukaldariak oso prestatuta daude gauza horietarako, baina gu oso familia umiletik gentozen.

Ez zenuten lekukoa pasatzea pentsatu?
Ilobei, agian? Baina ez zuten interesik agertu. Hartza gu ginen, eta haiek gaizki pasako lukete. Azkenean, gu inplikaturako gintuzkete ere. Izan ere, konparatuko zuten, eta konparatzen egotea zaila izango zen beraiendako.

Faltan botatzen duzue?

Samintasunez oroitzen gara? Bai, nola ez. Baina edozer gauza be-

zala. Kirolariekin berdina gertatzen da. Argi dute haien karrerak denbora mugatua duela. Atzera egiten duzu eta pentsatzen duzu ea nola egon zaren horretan hainbeste urtez eta uzteko garaia iristen da. Faltan botatzen duzu, baina bizilegea da. Itxi ondorengo hasierako egunak okerragoak izan ziren. Lehenengo hilabete horiek. Itxi genuen hurrengo egunean ikusten duzu historia hemen amaitu dela eta dagoeneko ez dela itzuliko. Goizean jaiki eta normalean kafea jatetxean hartzen genuen, eta orain zer. **Orain zein egoeratan dago jatetxea?** Arzakekin egondako mutiko bati alokatu diogu. Abaco deitzen da


orain. Uhartan egon zen eta oso ongi egiten dute lan. Baina beste gauza bat da. Beste kontzeptu bat. Jatetxea azken momentura arte mantendu genuen, agian nahi zuelako gure altzarietara gelditzea. Gauza batzuk hobetu behar ziren zaharkituta zeudelako. Baina irudia aldatu du eta bere estiloan jarri. Oso iluna da orain. Lehen zeuden hainbat altzari Altsasuko etxera ekarri genituen. Sukaldeak oso ongi funtzionatzen du.

ESKER ONA

Omenaldi asko jaso dituzue, gehien bat jatetxea itxi ondoren.

Badirudi joango garela. Tristura ematen du. Harrituta hartzen

ditugu. Batzuk pentsatuko dute zer garen gu omenaldiak jasotzeko. Azkenean, bakoitzak dauka bere bizimodua, historia... eta hobe edo okerrago egin dezakezu. Baina omenaldi bat, zergatik? Agian, benetan merezi duen jendea badago, GKE jendea, kirolariak, ingeniariak... Beti izan gara eskuzabalak. Iruñeko etxea Gaztelu plazan dago, baina balkoiak Estafeta kalera ematen dute. Eta ezagun bat hainbat lagunekin etorri zen. Hasieran sei izan behar ziren eta hamahiru agertu ziren. Gosaltzeko zerbait eman genien eta abar. Gero bidali ziguten mezu bat esaten oso eskertuta zegoela izandako harreragatik eta ohorearekin esango zuela Hartzaren etxean egon zirela.





ASTEKOA

RAF ATXURI

Galarretan "Irautera" deituak

Castillo Suarezen olerkiek liburutto bat eragiten duten aldiro, sarau zaindu eta apaina heldu da Altsasura edo aldirietara, halako moldez non poeta altsasuarraren liburuen plazaratzeaz "zenbat aurkezpen hainbat miresentzen" esaera osa genezakeen.

Hala suertatu zen ekainaren bian, hauteskunde ondoz, Lautadako Galarretan, Kukuma-eneko kortan.

Beak eta Jonek amultsu eta maitekiro hartu zituzten bisitariak, eta Urdiaingo pastak eta Iruberriko ardo aparduna lagun, olerki-festa xoil eta xumea igaro zen arrats bare-epelean; haren abaroan hainbat "logia" tako kidek gozatu ederra hartu zuten elkarraldi feng-shui eta minimalista samarrean, non poema batzuen aletzeak Aizkorriko magalak zipristindu zituen, Atxagaren arretapean.

Castillo, aspaldi samarretik ibilbide literario taxuzko, eder eta sendoa eraikitzen ari da: olerki-bildumak, haurrendako ipuinak, zutabegintza Berrian, Argian... bere *Iparraldeko neska* deritzan bloga guztiz gomendagarria ahanzi gabe. Eta batek daki, agian Enrike Zelaia bezala amai dezake, mugarik gabe eta nonahi

"ZENBAT AURKEZPEN HAINBAT MIRESMEN" ESAERA OSA GENEZAKEEN

ekintzaile. Oraingo, behinik behin, opari zoragarria egin digu *Irautera* azken lanarekin, iratze hostoak azalean eta bizitza, maitasuna eta bakardadea hitzen muinean.

Aurreko olerki sorkarietan bezala "zu" misteriosu eta omnipresente batek (nik 180

aldiz opatu dut "zu" aditz nahiz izenordainetan) poemen tolesdurak ozen josten ditu. Paradoxak eta kontraesanak ez dira eskas: "joan nintzen geratu nahi nuelako", edota esanahi sakoneko aleak: "maite dutenek bakarrik dakite maitasunik gabe bizitzen" nahiz irudi ezinago indartsuak: "aizkorada bakoitzean nire gainean egongo zarela".

Behinola Xabier Mendiguren editoreak esan zuen Suarezren poemak magnetikoak eta hermetikoak direla, eta hala dira, baina hegada altxatzen beti ere. Izate hutsetik irautera. Magnetikotik kanonikora.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00 baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Migratzaileekiko elkartasuna ez delako geldituko

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Itsasoan erreskate lanak kriminalizatzeko saiatuagatik, migratzen dutenekiko elkartasuna geldiezin da. Carola Rackete, SeaWatch 3 itsasontziko kapitaina, izan da atxilotzen azkena; jada aske bada ere.

Aurretik Aita Mari, itsasontzi euskalduna, bere egitekoa aurrera eramateko debekuekin, Open Arms estatuko itsasontzia... Bizitza salbatzeko agindua bete besterik ez dute egiten Mediterraneoan diharduten salbamenduko itsasontziek eta haien tripulazioek.

Ulerituko al luke norbaitek, auto istripu baten aurrean

anbulantziak bertaratzea debekatzerik?

Bizitza babestea dute helburu erreskaterako itsasontziek. Mediterraneoan 18.000 gizaki hil da azken 5 urteetan. 2019. urte honetan 600 dira hildako pertsonak. Eta datu horiek ofizialak dira, ziurren ere egia zenbakiak gora egingo dute. Nabarmen, gainera.

Kontua da ez dagoela inor errealtate bortitz bezain gordin horren berri emango digunik. Itsasontziak blokeatzen dituzte, isunak jartzen dizkiete -300.000 eta 900.000 euroko isunen mehatxuak-, eta baita kapitainendako inhabilitazioak eskatu ere.

Ez da bidezkoa hainbeste traba jartzea bizitzak

salbatzeari. Baina hala egiten denerako, agian atzetik dagoen arrazoia izango da benetan jendea hil dadin nahi dutela; eta ez besterik.

Egoera lotsagarri honen aurrean, Europaren erantzuna lotsagarriagoa suertatzen da: erreskaturiko 40 pertsonen giza eskubideak onartzeko estatuen arteko "elkar-trukaketa diplomatiko sendoak" behar izatea.

Europako estatuek egoera honekin bukatu nahi balute, lurrean gizakiekin trafikatzeko dutenen ekintza ilegalarekin bukatuko lukete. Eta migratzeko bide ziurrak jartzea, behingoz.

Azkena Carola, baina gaur bertan belaontzi txiki bat Italiako kostara sartu da, beste hainbat migratzaile erreskatatuta.

Migratzeko guztion eskubidea delako, haiekiko elkartasuna ez da geldituko.

OBJEKTIBOTIK

Putzuaren beste aldetik Lizarragara

Urrunetik etorri dira Lizarragako mikro-sarea ikustera bisitariak, Kentuckyko unibertsitatetik hain zuzen ere.

Sakanako herri txiki honetan gauzak ongi egiten ari dituztenaren seinale da Kentuckyarren bisita. Ez da lehenengoa gainera, aurretik ere putzuaren beste aldetik etorri ziren proiektu aitzindari hau ezagutzera. Ingelesa ikasten hasi beharko gara.



SAKANAGARATZEN

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larraza

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK





Lan hitzarmena negoziatzeko eskatuz Apoyos Metalicosen langileek 2015ean egindako kontzentrazioa. ARTXIBOA

Apoyos Metalicos itxi nahi du zuzendaritzak

Langileek zuzendaritzarekin lehenbailehen elkartu nahi dute eta horregatik premiazko bilera eskatu dute. Lantegia ixteko zein arrazoi dituzten jakin nahi dute langileek, "ez baitakigu ezer". Lan hitzarmena berritzeko bileran eman zieten itxieraren berri

OLATZAGUTIA

Apoyos Metalicos lantegiko 73 langileek batzarra egin zuten astearte eguerdian. Sindikatuetako ordezkariekin batera aurrera eman beharreko pausoak zehaztu zituzten. Lehenik, zuzendaritzarekin negoziazio mahaian eseriko den ordezkari-tza zehaztu zuten. Enpresa Batzordeko (ELAko 3 eta LABeko eta UGTEko bana) kideak eta ordezkatuak dauden hiru sindikatuetako kideek osatuko dute. Langileen ordezkariak zuzendaritzari premiazko bilera eskaera egin diote.

Aldeak astelehenean bilduko dira. Langileek ostiraletik dakiten bakarra da zuzendaritzak

kontratuak desagerrarazteko Enplegu-Erregulatzeko Espediente bidez lantegia itxi nahi duela. Enpresa batzordeko kide Alfredo Berasategik nabarmendu digunez, "ez daukagu informazioirik, ez dakigu zergatik itxi nahi duten; pentsa dezakeguna espekulazio hutsa da, ez dakigu ezer!" Pentsamenduen artean leudeke: errotak gero handiagoak egiten direla eta Olatzagutiako lantegia txiki gelditu dela. Baina "hipotesia" besterik ez da.

Esaten dietena eta jasotzen duten informazioa aztertuko dute. Langileek argi dute: "lehen borroka lantegia ez ixtea da. 73 familiaren etorkizuna dago jo-

koan. Barranquesan eta Bargan ere eragina izanen du, gurekin lan egiten dutelako".

Zuzendaritzarekin hitz egin ondoren hurrengo pausoak zehaztuko dituztela azaldu digu Berasategik. Baina lantegiaren jabetzaren % 30 duen Gamesarekin eta udal ordezkariekin hitz egiteko asmoa dutela aurreratu digu. Langileek ez dute baztertu mobilizazioak egitea.

Hitzarmena berritzetik itxieraren kontra borrokatzera

Olatzagutiako lantegian lan-hitzarmena berritzeko negoziatioak hasiak zituzten. Enpresa batzordeko kideak lan hitzarmena berritzeko bilera batera joan

ziren joan zen ostiralean. "Ordu-arte hitz onak ziren. Urte bateko lan-hitzarmena eta Kontsumo Prezioen Indizea gehi puntu bateko soldata igoera eta errelebo-kontratuak egitea proposatu genituen. Enpresak hiru urterako lan hitzarmena nahi zuen. Negoziatzera joaten ginen, eta bat-batean itxierarena bota zituzten".

Berasategik azaldu digunez, 73 langileez aparte, lantegian azpikontrata bateko 12-15 langile ari dira lanean. "Hiru txandatan ari gara lanean. Joan den hilabetean orduak sartzen egon ginen, lan karga handia zegoelako eta ezin iritsi genbiltzalako". Itsasoan jartzen diren haize erroten goiko parteak egiten ari dira Apoyos Metalicosen gaur egun. "Gainera, estatuko haize-parkeak berritzen ari dira". Azken aldian Zaragozarako eta Albaceterako ekoiztu dutela argitu digu.

Lantegiaz

Apoyos Metalicos lantegia Gamesak sortu zuen haize erroten dorreak diseinatu, egin, merkaturatu eta mantentzeko. Gamesak eta Asturiasko Daniel Alonso taldeak elkarte estrategikoa sortu zuten 2007ko garagarrian eta Windmill Towers sortu zen. Haren bidez asturiarrak Olatzagutiako lantegiaren % 68ko jabetza bereganatu zuten eta Gamesa % 32arekin gelditu zen. "Haize erroten dorreen eraikuntza munduko lider" izatea zen helburua. Daniel Alonso taldeak bost sail ditu eta horietako bat da Windar Renovables. Horren barruan dago Apoyos Metalicos eta estatuko beste zazpi lantegi. Gainera, lantegi bana ditu Mexikon, Brasilen, Indian eta Errusian. Azken hori pasa den urtean zabaldua.



ITSASI EUSKALTEGIA

Euskara ikasleek dirulaguntzak eska ditzakete

Euskaltegian edo barnetegian aritu direnek Mank-i aurkeztu diezaioke eskaera

SAKANA

Aurreko ikasturtean euskaltegi edo barnetegi batean euskara ikasten aritu diren sakandarrak diru-laguntza eskatzeko aukera dute. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 2018ko garilaren 1etik 2019ko garagarriaren 30era arte egindako ikastaroen matrikuletarako emanen ditu laguntzak, baina ez kilometraje gastuetarako. Diruz lagunduko dira ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegieta-koak eta baliabide informatikoen bidez eginikoak. Diru-laguntza-tik kanpo geldituko dira lagunduko ikastaro teknikoak eta C1etik gorakoak ere. Eskaerak aurkezteko epea hilaren 31n des- pedituko da. Eskabideak eta dagokion dokumentazioa ibarreko erakundeak Lakuntzan duen egoitzan aurkeztu beharko dira.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia
10:15 Bateti bestia
10:20 Eguneko albisteak
10:45 Hizketan
11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin
11:55 Agurra

beleixe 107.3 FM

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS

SAN FERMINTZA
SAIOA
EH IRRATIAREN ESKUTIK

Uztailak 13 eta 14
12:00etatik 14:00etara

Auzolanari buruzko herri galdeketa 21ean

Maiatzean egindako bileretan auzolanari buruzko proposamena ondu zen, eta erabakiko dute hura aurrera eramanen den edo ez. Atzo bi informazio bilera egin zituzten eta gaur beste hiru egingen dituzte, auzoka

BAKAIKU

Bakaikuko Udalak jakinarazi duenez, auzolanari buruzko herri galdeketa hilaren 21ean, igandean, izanen da. Auzolan proposamenaren eta herri galdeketa berri emateko Bakaikuko Udalak herriko bost auzoetan, kalean, informazio bilerak antolatu ditu. Bakaikuarrek bilera horietan ere kezak argitzeko eta ekarpenak egiteko aukera izanen dute.

Aurreneko informazio bilerak atzo arratsaldean izanen ziren Mailusa eta Maldaiko larrainetan. Gaur, berriz, hiru hitzordu dau jarriak: 18:00etan santio plazan eta ibaiko zubian eta 19:30ean frontoian. Udalak bakaikuarrak bileretan parte hartzera gonbidatu ditu.

Bakaikuko Plan Estrategikoan hiru lehentasunak zehaztu zituzten herritarrek: etxebizitza, eskoletako eraikina eta auzolana. Aurreneko biak gai mamitsuak direnez, uda pasa ondoren hasi-



Bakaikuarrak Emun-eko kideek gidatutako auzolanari buruzko saio batean. ARTXIBOA

ko dira haiek aztertzen, baina festen aurretik auzolanarena zehaztu nahi dute. Bakaikuko etorkizuneko auzolanak nolakoak izanen diren zehazteko dinamika otsaila akaberatik maiatza erdialdera arte egon dira azter-

tzen. Bakaikuarrak osatutako batzordeetan lehenik, eta bukatzeko Emun aholkularitzak gidatutako bi saioekin amaitu zen. Bakaikuarrak erabakiko dute adostutakoak aurrera egingen duen ala ez.



Dantzariak Itxaspeirrin. M. A. LAPLANA

Arakilgo eguneko aurre-prestaketak

Arakilgo Ibarraren eguna garilaren 20an ospatuko da. Ohi denez, Egiarretako Itxaspeirri ermita erromanikoaren inguruan hasiko da ospakizuna eta gero Zuhatzun izanen da ospakizunaren jarraipena.

Arakilgo Egunaren egitarauaren barruan herri bazkaria dago. Izena ematea heldu den asteartean despidituko da. Arakilen erroldatuta dauden helduek 20 euro pagatu beharko dituzte, 23 erroldatuta ez daudenek kasuan. Haurrek kasuan 9 edo 11 euro pagatu beharko dute, ibarrean erroldatuta dauden edo ez kontutan hartuta. Udaletxean, 948 500 101 edo 634 584 226 telefonotara hots eginez eman daiteke izena.

Haurrak Aralarko aingeruari aurkezteko eguna prestatzen

Iruñeko festen ondorengo igandeak esanahi berezia du Aralarko santutegian: Aralarko Aingeruari Haurren Aurkezpene egingen da. 16. urtez Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak antolatu du aurkezpene. Ekimen horren bidez kofradiak segida eman nahi dio makina bat familiek Aralarko santutegiarekin duten lotura bereziari, izan ere, garai batean santutegian haurrak bataiatzeko aukera bazegoen ere, gaur egun ezin da elizak araudia aldatu baitzuen eta zein bere herrian bataiatu behar baititu seme-alabak.

Aralarko aingeruari etxeko txikiak aurkezten dizkieten familiek haurraren izen-abizena duen pergaminoa jasoko dute. Idatzian Mikel goiaingeruaren lagun direla aitortzen da eta haren bizi guztirako babesa eskatzen da. Pergaminoa garilaren 21ean bertan jaso nahi zutenek izena bi aste lehenago eman beharra zuten. Hala ere, egunean bertan izena eman beharrean aurretik egin nahi dutenek santutegiko sakristian dauden esku-orriak bete behar dituzte. Bestela, 609 406 780 telefonora hots egin edo basanoa.josemari@gmail.com e-postara idatzi. Berandu edo egunean bertan doazenek agorrilean jasoko dute idatzia.

Ikasturtea bukatuta ere, eskolakoak saritik sarira

Zientzia Azokan sormenaren saria lortu ondoren, "Emakume zientzialaria izan nahi dut" lehiaketan ere

LAKUNTZA

Sari batek bestea ekarri du. Lakuntzako eskolako ikasle talde batek Hezkuntza Departamentuak antolatutako Zientzia Azokan parte hartu zuen maiatzaren 15ean. Crazy brains edo Muin eroak taldekoek gure ahotsaren grabazioa entzutean zergatik egiten zaigun arraro azaltzen saiatu ziren euren lanean. Horregatik, Zientzia Azokako bost sarietako bat lortu zuen, sormenarena. Horrek Iruñeko Planetarioan Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) emakumez-

ko irakasle talde baten antzezlan ikusteko aukera eman zien: *Emakume zientzialaria izan nahi dut*. Han izen bereko NUPen lehiaketaren berri izan zuten.

Erronkari heldu eta emakumezko zientzialariei buruzko lana egin zuten Lakuntzako eskolako Lehen Hezkuntzako ikasle diren Idoiak, Laidak, Julenek, Lukak, Olaiak eta Ekainek. Zientzia berdintasunaren bidean lana aurkeztu zuten, Maddi Iradi Iturrioz tutoreak azaldu digunez, "ipu digital bat da, storyjumper aplikazioarekin sortua. Ipuina

ikasleek sortutako irudiekin eta ahotsarekin eginga da". Ikasle lakuntzarrek zientzia gustuko duen neskato baten istorioa kontatu zuten: "ikasketak egin nahi ditu, baina etxean eta gizartearen ez du laguntzarik jasoko. Lagun berri batek bere ametsa egia bihurtzen lagunduko dion arte". Iradik argitu digunez, "ipuaren mezua da emakumezkoak zientzian aritzeko eskubide bera behar dutela eta oraindik bidea egiteko dagoela".

Bestetik, Mary Anningi (1799-1847) buruzko lana ere aurkeztu zuten. "Aurkezpen interaktibo bat da, Genially aplikazioaren bidez sortua. Bertan, Mary Anning neska gazte eta ikerlariaren bizitza gorabeheratsua azaldu zuten". Fosil jasotzailea, saltzailea eta paleontologoa izan zen, eta XIX. mendearen lehen erdial-



Lakuntzako eskolako saritutako ikasle taldea. UTZITAKOA

dean lan garrantzitsua egin zuen. Zientzialarien iritzi munduaren historiaren zientzietan gertatu ziren aldaketa oinarritzekoetako bat jarri zuen. Emakumea eta jatorri behartsua izanik Britainia Handiko orduko zientzia-

komunitateak hainbatean bere lana ez zuen kontuan hartu, nahiz eta munduko geologoaren artean itzala lortu zuen. "Bere bizitza kontatzeaz aparte, akaberan hausnarketa egiten dute zientzia eta emakumezkoen inguruan".



Arakilgo ikuspegia Erga menditik. ARTXIBOA

Kontzeju berrituak lanean

Sakanako biztanleriaren % 7 inguru, 1.300 bat sakandar, ibarrean dauden 15 kontzejuetako batean bizi da. Ibarreko 15 kontzejuetatik 13tan buruak gizonezkoak dira eta bitan emakumezkoak. 54 hautetsitik 45 gizonezko eta 9 emakumezko dira

SAKANA
Azken hauteskundeekin batera, maiatzaren 26an, Sakanako kontzeju guztiak berritu ziren.

Urritzola
Erroldatutako 20 urritzolarren 12 boto jaso zituen Fermin Mariñelarenak eta Milagros Baile-ri hartu dio lekukoa kontzejuko presidente gisa.

Errotz
Sergio Altunak presidente izaten segituko du (28 boto). Berarekin egoenen dira: Begoña Omatos (22 boto), Jose Javier Ruiz de Erentxun(21), Fco Javier Ortega(18) eta Ignacio Toledano (10).

Izurdiaga
Luis Migel Beraza Ameztegi segituko du ardurarekin (49 boto). Berarekin izanen dira: Juan Jose Azparren (32), M^a Rosa

Beraza (30), Unai Osakar (28) eta Dei Arteaga (24).

Etxeberri
Javier Martijak eta Felix Lopez-egik 19na boto lortu zituzten. Aurrenak segituko du kontzeju-

buru. Biekin batera Marcial Zestau (18), Oskar Antonio Lizarraga (16) eta Pedro Auza (3).

Egiarreta
Fermin Izkieta da kontzejuko-buru berria, Joakin Lazkoz

Olaetxeari lekukoa hartuz. Biekin batera kontzejua osatuko dute Migel Erbitik (28), Estebe Lazkoz (25) eta Mikel Villanuevak (20).

Etxarren
Etxarrengo Kontzejuko aginte makila Migel Angel Irurtiari (30) pasa dio Jon Zabaletak. Kontzejuan kide izanen ditu Roberto Etxeberria (47), Asier Santesteban (37), Pablo Legarra (36) eta Igantzi Jauregi (20).

Ekai
Kontzeju-buru berria du Ekaik: Francisco Javier Uharte Garro, Jesus Anjel Ongai Sanzi hartu dio lekukoa.

Zuhatzu
Zuhatzuko Kontzejuko presidente berria Juan Pedro Arregi Sarasa da, Zuriñe Ormaetxea Padillaren lekukoa hartu du.

Satrustegi
Igor Lanz Rapunek Juan Pedro Amoztegi Zubillagari pasa dio Satrustegiko Kontzejuko aginte makila.

Hiriberri Arakil
Jose Luis Legarrak (50) segitzen du Hiriberri Arakilgo Kontzejuko presidente izaten. Eta kide ditu: Javier Arrieta (50), Jose Cruz Arbilla (48), Salvador Eusebio Unanua (40) eta Jose Maria Urroz (33).

Ihabar
David Erbitik Oskar Garziari (55 boto) pasa dio. Garziarekin kontzejuan izanen diren gainontzeko lau kideak izanen dira: Nerea Uharte (32), Mikel Miren Jimenez Irurtzun (29), Mikel Astiz Erro (28) eta Imanol Irurtzun Artola (22).

Unanu
Unanuarren botoek maiatzaren 26an Jesus Mari Balda Mercero (46 boto) kontzejuko presidente egin zuten. Kontzejua horrela osatuta gelditu zen: Roman Mercero Berastegi (38), Mikel Mayo Lizarraga (35), Ainhoa Hernan Mendibe (23) eta Isabel Villar Gurrutxaga (20).

Dorrao
Maiatzaren 26ko hauteskundeetan Dorraoko erroldako 97 hautesleek boto gehien Idoia Resano Igoari (67 boto) eman zizkionten eta bera izanen da legegintzaldi honetan kontzejuko-presidentea. Ardura hori hartzen duen bigarren emakumezkoa da. Harekin batera kontzejuan izanen dira Jon Ander Lizarraga Lizarra (54), Josu Resano Mendinueta (52), Urko Resano Gonzalez (43) eta Amaia Lizarraga Unanua (26).

Lizarraga
Lizarragako Kontzejua berritzeko hauteskundeon ondoren Unai Navarro Aristorena da presidente berria. 152ko lizerratarren erroldatik 77 boto jaso zituen. Berak baino boto gehiago lortu zituzten bi hautagai izan ziren: Mirian Berastegi Gurutxarri (83) eta Emeterio Senar Elso (82). Aurrenak uko egin eta beste Ergoienako alkate aukeratua izan da. Hiru horiekin batera Mikel Beltza Goldarazena (65) izanen da kontzejuko kidea.

Lizarragabengoa
33 lizarrengotarrek zuten botoa emateko aukera. Aitzurdi hautagaitzako Teresa Goikoetxea Arregik 28 jaso zituen. Bera da kontzejuko presidente berria, Jose Manuel Garmendia Lakuntzari lekukoa hartuz.

ALZATE ERAIKUNTZAK
s.l.
Zubetia 21, Alsasu
Tel. 948 562 745 - Fax 948 467 600
www.construccionessalzate.com

BILTOKI
TABERNA • JATE-TOKI
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta
Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua
10€
Asteburuetan
Menu berezia 25€
948 467 876 - Alsasu

Dorraoko jaietarako
2 tabernak
alokatzen dira
Jaiak Abuztuaren
14-tik 18-ra izango
dira. Interesatuak
deitu 629 45 40 77
tfnora uztailaren 31a
baino lehen.

Olga Martínez de Lagrán
PSIKOLOGIAN DOKTOREA
Psikologian doktoa
- Minaren tratamendua
- Antzietatea, depresioa, beldurak
- Masaje psikomotoriala
olgamartinez@yahoo.es
639 408 118



Koordinakundetik astelehenero bilkuretan parte hartzera deitu dute.

Pentsio duinen aldarrikapenak udan kalean segituko du

Gobernuak aurrekontuak prestatzen hasten direnean, irailean, haien eskaerak aurkeztuko dizkiete

SAKANA

Pentsiodunak astelehenero kalean protestan dira. "Pentsioak Birbaloratzeko Legea, murrizketak eragiten dituen, indarrean dago, baita 2013ko Jasangarritasun Faktore Legea ere. Gobernu batek ere ez du abian jarri pentsio sistemak behar duen eta aurre egingen dion finantza eredurik". Sakanako Pentsionisten eta Adinduen Koordinakundetik salatu zuten, "zalantzarik gabe, ez dago murrizketak atzera botatzeko borondate politikorik, ezta pentsio sistema publikoa erreformatzeko era interesatuan bulkatzen den ziurgabetasunari akabera emateko ere". Ziurtatu zuten, "aberastasun eta dirufuntza nahikoa dago pentsioak bermatu, baita beste gizarte-zerbitzu batzuk ere. Behar dena da zerga-iruzurrari aurre egitea, baita ustelkeriari, kotizazioei. Eta banku-sisteman eskua sartze

progresiboa egin eta zerga-saihes-tea ekiditea".

Erkidegoetako eta estatuko gobernuek pentsiodunen eskaerak batzuk bere egin badituzte ere, "gure eskariak aseko badira ezinbestekoa da pentsiodunen mugimenduak aurrera jarraitzea eta, ahal den guztietan, beste gizarte sektoreekin elkarlanean ekimen bateratuak eta masiboak bultzatzea". Horrela erabaki guneetan eragin nahi dute. Jakinarazi zuten, udan asteleheneroko kontzentrazioei eutsiko diete. Erkidegoetako eta estatuko gobernuek irailean 2020ko aurrekontuak prestatzen hasiko direla eta haiekin elkartzen saiatuko direla jakinarazi dute Hego Euskal Herriko pentsiodunek. Eta aurreratu dute Adinduen Nazioarteko Eguna-ekin batera, lastailaren 1aren bueltan, mobilizazio handiak deituko dituztela.



Nafarroako auzipetuei babesa azaltzeko Iruñean egindako bilkura. UTZITAKOA

11/13 auzikoak eragileekin harremanetan ari dira

Manifestuak 8.200 sinadura baino gehiago bildu ditu dagoeneko. www.11-13makroepaiketa.eus sina daiteke

ARBIZU

Espainiako Auzitegi Nazionalan 47 euskal herritarren kontrako epaiketa hasiko da irailaren 16an. 601 urteko espetxe zigor eskaerari aurre egin beharko diote auzipetuek, "euskal presoek eskubideen alde eta bake egoera bat finkatzeko asmoz lan egiteagatik". Horien artean da Fran Balda Araña arbizuarra. Auzipetuek jakinarazi dutenez, "gehiengo politiko eta sindikala osatzen duten alderdi zein eragileekin harremanetan ari gara. Hainbat bilkura egin ditugu jada, eta aurrerantzean ere hainbat sektoreekin eta profesionalekin elkartuko gara".

Bilera horien bidez euren "egoe-ra larriaren berri eman eta konponbiderako gogoeta partekatuak ahalbidetzea da, zeintzuen bitartez, bakea, elkarbizitza eta etorkizun hobe bat sustatzeko borondate irmoarekin urratsak ema-

teko prest gaude. Harreman dinamika hau, gainera, nazioarteko hainbat herritara eramateko aukerak aztertzen ari gara". Besteak beste Katalunian eta Europako Batasunean zabaldu nahi lukete euren auziaren berri.

Auziaren berri emateko udako festetan Arbizuko Balda herrira! Plataformako kideek zapiak banatuko dituzte haietan elkartasun mezuak idazteko. Zapi guztiak irailaren 7an, larunbatean, Arbizun egingen den ekitaldian elkartuko dituzte. Bestetik, irailaren 14rako, Bilbon manifestazioa deitu dute. Horren aurretik, 11 nafar auzipetuei elkartasuna adierazteko Iruñeko Burgoen plaza beteta zegoela ekitaldia egin zen joan den ostiralean.

Azkenik, auziko gastuei aurre egiteko diru-bilketa egiten ari dira. Laboral Kutxan kontu korrontean edo www.11-13makroepaiketa.eus bidez eman daiteke.

Nafarroa Oinezek Igoa omendu zuen sanferminetan

Sanferminak larunbat eguerdian hasi ziren. Etxaju bat baino gehiago botatzen dira ordu horretan eta horietako bat Nafarroa Oinezena da. Nafarroako ikastolen ospakizuna aurten Tuterako Argia ikastolak antolatzen du eta txupinazoan emakumezko guztiak eta, bereziki Marta Igoa omendu zituzten. Etxarriarra Nafarroa Oinezeko koordinatzailea da eta urtean barna egiten duen lana aitortu nahi izan zuten keinu horrekin. Igoa ezin izan zen ekitaldian egon. Takonera parkeko Basotxoan ertzean duen barrakan Nafarroa Oinezek eskaintza zabala proposatzen du sanferminetarako. Handik sakanar ugari pasatzen dira, bai lanera baita kontsumitzera.

Bestalde, udaletxeko plazan, La Pamplonesa musika bandak etxajua pizteko garaian, Altsasuko auzia salatzen zuen banderolaren bat ikusi zen balkoiren batean. Auzipetuen aldeko oihuren batzuk ere entzun ziren udaletxe plazan.



Hualde Agirrebengoari zapitxoak jartzen.

Palestinarren elkartasuna

Euskal Herrian den Basket Beat Borders ekimeneko 17 kide palestinarrek ostiraleko Altsasukoak aske kontzentrazioan izan ziren eta kantu bat eskaini zuten. Gurasoei opari trukea ere egin zuten. Bestalde, sanferminetan, Iruñeko Errekoletak plazan, kontzentrazioa egingen da larunbatean, 13:00etan. Gaur, ohi den moduan, 20:00etan, Altsasun.



@ALTSASUGURASOAK

Agirrebengoak EAJren "zapitxoak" jaso du

San Fermin egunean, igandean, jaso zuen Jose Angel Agirrebengo altsasuarrak Eusko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) "zapitxoak". Napar Buru Batzarreko presidenten Unai Hualde eta Euskadi Buru Batzarreko presidenten Andoni Ortuzar presente zirela egin zen ekitaldia. Jeltzaleek Napar Buru Batzarreko presidenten eta Altsasuko alkate ohiaren lana eta ibilbidea saritu dute.



Iturmendiko egoitzan eta Altsasuko pisuetan dauden mutikoetako batzuk. ARTXIBOA

"Mutikoei, Iturmendiri eta Sakanari aukera bat eman"

BEGO ZESTAU BARAIBAR ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUKO TEKNIKARIA Bakarrik dauden adingabe atzerriar talde esanguratsu batek Iturmendiko egoitzan eta Altsasuko pisuetan hirugarren astea egingen du. Epe luzerako izanen dira gurean

SAKANA

Zer dakizue migrazio prozesu horien arrazoiez?

Sorterrian egoera ez da ona. Etorkizun hobe baten bila, bere egoera hobetzeko helburuz, familiak erabakitzen du zeinek hasiko duen migrazio prozesua. Hala, Sakanan 14 eta 17 urte bitarteko mutil gazte batzuk daude. Ghanako bi izan ezik, gainontzeak Marokotik etorriak dira. **Migrazio berezi bat da, ezta?** Ekonomia-migrazio prozesua hasi dute. Haien asmoa eta hel-

burua da prestakuntza jasotzea eta lanean hastea. Lana aurkitzea eta dirua egitea. Euren ekonomia-egoera hobetuz sorterriko familiaren egoera hobetzeko.

"HEMEN DAUDEN BITARTEAN, LEHENDABIZI, GOAZEN EZAGUTZERA. BAINA, BEGIRADA GARBITIK"

Orain Sakanan ditugu.

Epe luzerako izanen da. Behin Nafarroara iritsita, legeek hala esanda, gobernuak, bai edo bai, adingabeei babesa eman behar die. Bere erantzukizuna da. Nafarroako Gobernuak ez zuen aurreikusita halako bat-bateko kopurua iristea. Ez dira Nafarroara etorri diren aurrenak. Aspalditik datoz, eta etortzen segituko dute, baina apiriletik hona gorakada izan da. Gobernuak mojekin akordioa itxi eta Iturmendin 25 plaza daude. Garagartzaroaren 25an iritsi ziren.

Urgentziazko une honetan zer nolako harrera egin behar dugu?

Alde batetik, Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua eta Sakanan Harrera Harana plataforma prest daude. Geure burua eskaini diogu Iturmendiko herriari, Nafarroako Gobernuari, gazteen egonaldia kudeatzen duen enpresari, gizarte eragile guztiei eta parte hartu nahi duen sakanadar guztiei. Mutiko horiei behar bezalako harrera eskaintzeko eta aurrera eramateko. Elkarlanean planteamenduak eskaintzen gabilta. Festak izanen dira heldu den astean eta haien arteko harremana hurbilduko duten jarduerak planteatzen ari gara, nahiz eta egitaraua asteartean banatu zen. Hala ere, uste dut, herriko gazteak beraien artean ere harremanetan hasi direla. Iturmendiko Gazte Asanbladarekin hitz egingen dugu, baina uste dut, buruan dutela. Naturala ere badelako: herrian daude, elkar ikusten dute, egun batzuk ere pasa dira... Gauzak planteatu eta parte hartu. Askok lagun-duk duen zerbait da ez ikustea edo ez indartzea atzeritik etorritako adin txikikoen inguruan dauden zurrumurruak. Justu kontrakoa: mutiko horiei aukera bat ematea. Mutiko horiei. Iturmendiko herriari. Eta Sakanan berari ere. Hemen daude. Etorri dira. Ziur eta zehatz ez dakigu zenbat denborarako egonen diren ez Iturmendin ez Sakanan. Baina dauden bitartean, lehendabizi, goazen ezagutzera. Baina, begirada garbitik. Sorpresa eder bat har dezakegu. Zergatik ez? Beste edozeinekin bezala. Denborak esanen digu zer nolako harremana, zer nolako harrera eskaintzen diegun geuk ere. Zer nolako jarrera duten haiek ere. Haien helburua argi dago: ikasi eta lan egin. Erronka handi baina polit baten aurrean ere bagaude. Honek onerako marka dezake Sakanak daukan harrera harana izatea.

Prest gaude?

Jendearen mesfidantza edo beldur puntu hori, neurri bateraino ulergarria da. Zerbait berria. Eta berria izateaz aparte, des-

berdina. Horraino ulergarria da. Kontua da ezagutzea. Ez dakigu nolako pertsona den, nondik datorren, zer bizi dakarren... Adin txikikoak dira, 14-17 urte artean, baina akaso bizitzak heldutasun bat eman die. Bidaia horiek bakarrik egiteak... Niri ez zait xamurra iruditzen. Zer pasako litzateke gure seme-alabak egoera horretan egonen balira? Goazen mutiko horiek ezagutzera. Egia dena da prestatu behar dugula. Gauza batzuk desberdinak direlako: hizkuntza, hitz egiteko modua, hizkeraren doina: altu hitz egiten dute eta guri ematen digu haserre daudela, han bizia kalean egiten da eta horrela hitz egiten dute. Ikasten badugu eta ezagutzen baldin badugu hori euren izateko modua dela, lasaitasuna ere etorriko zaigu. Denok elkarri aukera hori ematea. Haiek gurea eta guk haiena.

Lehenik eta behin hizkuntzak garrantzia hartuko du, ezta?

Hasieran ikasten dutena gaztelania da. Oraintxe bertan ez dago euskalduntzeko inolako prozesurik. Bi hilabetez bi prestakuntza eskaintzeko asmoa dago: nekazaritza eta basozaintza arlokoa eta bide eta baso garbiketarak. Aisialdiari dagokionez, uste dut Urdiaingo igerilekura joaten direla. Altsasura ere joaten dira. **Hau gehitzen joanen da?**

Bai. Migratze prozesua geldiezin da. Gainera, globala da. Ez dut inongo zalantzarik hau geldiezin dela. Gainera, giza-eskubide bat da. Orain 25 dira. Ez dakigu gehiago etorriko diren edo ez.

Dakiguna da Iturmendiko etxe hori, momentuz, epe luzerako dela.

Bai, harrera egiteko. Ez dakigu hemendik lau hilabetera beste txanda bat izanen den edo ez. Ez dakigu gazteen migrazio prozesua bukatuko den edo segida izanen duen.

Zerbitzuarendako ere aukera bat da.

Bai, ederra. Eta betikoa, zurrurruen aurrean lanean segitzeko ere. Beste bide bat zabaltzen da orain: gaztetxo batzuk, bakarrik etorri direnak. Orain arte etorri diren umeak etorri dira aita edo ama hemen zeudelako. Orain alderantziz, adin txikikoak familia aurrera ateratzera etortzen dira. Berria da. Arabiera dakien begiraleetako batek esan zigunez, adin txikikoak pozik daude Iturmendin. Pozik hastea ongi dago. +www.guaixe.eus

"JENDEAREN MESFIDANTZA EDO BELDUR PUNTU HORI, NEURRI BATERAINO ULERGARRIA DA"



Sanmigeletan abesbatzaren kontzertua izan zen plazan, baita auzatea.

Iturmendiarrak asteartearen zain, festak hasteko zain

Asteartea eta larunbata bitartean herritarrendako eta festa gosez joaten diren bisitariendako eskaintza dago

ITURMENDI

Iturmendiarrak sanmigelen eta Trinitate egunaren ondoren, asteartean, Karmen egunean, ekinen diote festei. Asteartetik larunbatera arte ospakizunak

nagusi izanen dira herrian. Ohi denez, festetako egun bat Urbasan, Santa Marina ermitaren inguruan pasako dute iturmendiarrak, ostegunean izanen da hori, Santa Marina egunean.

Egitaraua

Garilak 16, asteartea. Karmen eguna

- **11:00** Herriko txistulariekin herrian buelta.
- **12:00** Etxajua.
- **12:00** Meza.
- **13:00** Auzatea, Aritzaga elkarte.
- **17:00** Herriko dantzarien emanaldia.
- **20:00** Auzatea, Aritzaga elkarte.
- **20:00** Dantzaldia Drindots taldearekin.
- **22:00** Zezensuzkoa.
- **22:30** Herri afaria, pilotalekuan.
- **00:30** Dantzaldia Drindots taldearekin.

Garilak 17, asteazkena, Jubilatuta eta haur eguna

- **12:00** Haurrendako jokoak, pilotalekuan.
- **13:00** Auzatea, Ximona gaztetxea.
- **13:00** Carol Band bikotea.
- **14:30** Jubilatuen bazkaria.
- **17:30** Kadeteen txirrindularitza proba.
- **17:00** Haurrendako jokoak eta apar festa, pilotalekuan.
- **20:00** Auzate, Ximona gaztetxea.
- **20:00** Dantzaldia Cool dj-rekin.
- **00:30** Dantzaldia Cool dj-rekin.

Garilak 18, osteguna. Santa Marina eguna

- **10:00** Santamarinarantz igoera.
- **12:00** Meza.
- **12:00** Herriko trikiti taldea.
- **18:00** Herri aldera jaitsiera.
- **19:00** Sanpedroaldean auzatea, udala.
- **20:00** Dantzaldia Bull dj-rekin.
- **22:00** Makailu herri afaria.
- **00:30** Dantzaldia Bull dj-rekin.



Musika festa hasieratik akaberara presente izanen da Irurtzunen.

Irurtzunen asteazkenean hasiko dira bost eguneko ospakizunak

Bozketa bidez irurtzundarrek erabaki zuten etxajua Pablo Burgik piztea, eta halaxe egingen du asteazkenean

Egitaraua

Garilak 17, asteazkena

- **17:00** Kartelen erakusketa, udaletxeko bilkura aretoan.
- **17:30** Zapiak eta Konpartsaren liburua 2018. urtean jaiotakoei.
- **18:00** Festak iragartzeko txupinazoa eta kalejira.
- **20:00** Orritz dantza taldearen emanaldia.
- **21:00** Dantzaldia, EZK txarangak alaituta.
- **21:45** Jauziak.
- **22:00** Larrain dantza.
- **22:30** Zezensuzkoa, kultur etxetik.
- **00:00-04:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

Garilak 18, osteguna

- **10:00** Dianak.
- **11:00-12:30** Haurrendako margotze lehiaketa, plazan.
- **11:30** Helduendako herri joko eta jolasak, Gernika plazan.
- **11:30-13:30** Haurrendako Parke Handia.
- **12:45** Los Cazahuates mariatxia. Gernika plazan.
- **17:00** Pintacaras, Foru plazan.
- **17:00-20:00** Haurrendako Parke Handia.
- **18:30** Herri Kirolak, Gernika plazan.
- **19:30** Haurrendako txokolate-jana, Foru plazan.
- **20:30** 15 urte Dantzan, Xaiborren eskutik.
- **22:00** Larrain dantza.
- **22:30** Zezensuzkoa. Kultur etxean hasi eta Gernika parkean despidituko da.
- **00:00** "La que hemos liado", Bocabeats Komedia. Umorezko ikuskizuna.
- **01:30-03:00** Disko-festa gazteendako, Xaibor disko-jartzailearen eskutik.

Barazki Guneako egitaraua

Garilak 17, asteazkena

- **13:00** Barazki Gunearen irekiera txalaparta eta trikitixarekin.

Garilak 18, osteguna

- **14:30** Gazte bazkaria, ondoren bingoa.
- **16:30** Koadrilen kalejira, bajeaz bajera eta IX. Txapel jaurtiketa.
- **19:00** Ginkana.
- **23:00** Kontzertuak: Txartoak eta lagunak eta Smog.

Irintarrak, dermioan barna, ermitaz ermita ibiliko dira

Hurrengo lau igandeetan erromeria bana dute irintarrek. Herriko ermitak bisitatuko dituzte horrela. Aurreneko hitzorduan, etzi, ez dute asko mugitu behar, herri sarreran dagoen San Gregorio ermitan izanen baita elizkizuna. Hilaren 21ean, herriaren iparraldean Urruntzurerako bidearen eta Elkaungokamioaren bidegurutzearen ondoan dagoen San Migel Berri ermitan izanen da elizkizuna. Hilabeteko azken igandean, hilaren 28an, bargarantz joko dute irintarrek. Zabal dermioan San Pedro martir ermita zegoen, baina hura eroria dagoenez, elizkizuna Basabeko bordaren ondoan egingen dute. Akaberan udalak otamena eskainiko du.

Irañetako ermita guztiak bisitatu ondoren, irintarrek euren erromerialdia Aralarko santutegian despidituko dute. Agorri-laren 4an santutegiko elizkizunera joanen dira irintarrak eta, ondoren, udalak otamena eskainiko du.



Erduendako dantzak.

Altsasuarrek hitzordua dute Erkudengo ermitan

Soroak eta basoak zaindu eta babesten dituen igurari edo zaindari ona da Erkudengo Ama. Hala kantatzen diote urtero altsasuarrek bere egunean. Eta, atzera ere, egingen dute igandean. Bederatziurrena despidituta, Erkudengo Amaren irudia bere ermitara bueltan eramanez dute altsasuarrek 09:30ean. 11:00etan meza izanen da. Ondoren, gosaria eta dantzatzeko txanda.

Zumalakarregi inguruko lanak astelehenean hasiko dira

Amaia eta Bakea kaleetako zati bat eta Zumalakarregiko zoladura berrituko dira

ALTSASU

Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, astelehenean hasiko dira Amaia eta Bakea kaleko zati batean sareak eta zorua berritzeko lanak. Horrekin batera, Zumalakarregi plazako zorua berrituko da. Lehenik azken lan hori egingen dute eta gero bi kaleetakoak. Plazako lanek espazioa guztiz eraldatuko dute: hego aldean pergola jarriko da zuhaitz ilara bat kenduta, jolas parkea hego mendebaldera aldatuko da eta plazako zuhaitzak aldatuko dira. Lanak Apezetxea Anaiak SL enpresak egingen ditu eta horretarako 8 hilabete izanen ditu. Aurrekontua 1.192.227,79 eurokoa (BEZ kanpo) da.

Udaltzaingoa, osatzen

Joan den astetik Altsasuko Udalak udaltzain laguntzaile bat izateaz aparte, udaltzain laguntzailea du. Izan ere, udaltzain izandako agente batek bere postura bueltatzeko zuen eskubidea iri heldu dio eta berriro udalarendako lanean ari da. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi digunez, Nafarroako Segurtasun Eskolan trebatzen ari diren bost udaltzainak "jada udalaren langile kontratatuak dira, baina praktiketan". Jakinarazi digunez, bost agenteak Iruñeko sanferminetan praktikak egiten ari dira eta "Altsasuko festetan ere egoteko eskaera egingen dugu".

Bost agenteak abenduan hasiko dira lanean eta, beraz, Altsasuko Udaltzaingoa 6 agente eta laguntzaile batekin osatuko da. Ollok azaldu digunez, "horrela Udaltzaingo zerbitzua berreskuratuko da, baina zaila izanen da asteko zazpi egunetan goizeko eta arratsaldeko txandak betetzea. Izan ere, txanda bakoitzeko bi agente edo agente bat eta laguntzailea egon behar dira. Dena den, dudarik gabe, egoera asko hobetuko da".

0+ motakoa izan zen odol-emateen % 41,8

Ibarrean 1.103 odol-emate egin ziren joan den urtean eta sakandarrek emandako odol mota ugariena 0+ izan zen. 621 odol emailek eman zuten odola 2018an

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Adonak, Nafarroako Odol-emaileen Elkarteak, Sakanako joan den urteko odol-emate datuen berri eman digu. Guztira 621 odol-emaile sakandarrek eman zuten odola behin sikiera. Hau da, sakandarren % 3,07k eman zuen odola. Guztira 1.103 emate egin zituzten, 2018an baino 183 emate gehiago, ziurrenik Adonaren autobusa herriren batera gehiagotan etorri zelako. Osasun zerbitzuek 2018an emandakoetatik 155 atzera bota zituzten, baldintzak ez betetzeagatik. 1.103 emateetatik % 65,73 gizonetzkoek egindakoak izan ziren; eta odolaren gainontzeko % 34,27a emakumezkoek emana zen.

Emateko hainbat modu daude, baina Sakanan ohikoena 450 ml-ko odol-emate normala izan zen, 1.058 emate (% 98,1). Aferesi bidezko odol-ematean, ordea, odola makinaren bidez ateratzen da, bere osagaiak bereizten dira, beharrezkoak direnak hartzen dira, eta gainerako odola emaileari bueltatzen zaio. Halako 11 emate egin zituzten sakandarrek 2018an (% 1). Bestetik, auto-transfusioa dago. Ebakuntza egin aurretik, aste batzuk lehengo, odol unitate bat edo batzuk ateratzen zaizkio gaixoari, ebakuntzan bere odola erabili ahal izateko. Joan den urtean emakumezko sakandar baten kasuan egin zen horrela ebakuntza (% 0,09). Bestelako 9 emate izan ziren (% 0,82).

Adin tarteari erreparatuta, odol-emaile sakandarren herenak, % 31,19k, 50 eta 59 urte artean zituen. Emaileen laurdena (% 24,3), berriz, 40 eta 49 bitartean zegoen. Biadin tarte horien artean Sakanako emateen erdia pasa dira, % 55,49. Urrutiago gelditzen dira gainontzeko adin tartearak. Esaterako, Sakanako 18 eta 39

urteko emaileak % 25,21 dira. Eta 60tik gorakoak, berriz, % 19,22.

Taldeak





Joan den urtean odola eman zuten 10 sakandarretatik 4k 0+ odol mota zuen (% 41,8). Hurrengo taldea handiak A+ (% 31,01), O- (% 13,24) eta A+ (% 8,07) izan ziren. Gainontzeko hiru odol-taldeetako emaileek % 5,89a egiten dute.

Odol-emaile egiteko

Adonaren autobusa edo autohemoteka Sakanara maiz etortzen da. Parean suertatuz gero hara jo eta odol-emaile bihurtzeko nahia azaldu, besterik ez da egin behar. Medikuek eta erizainek bete beharreko baldintzak zein diren azalduko dizkiote. Autohemotekaren Sakanako hurrengo hitzorduak honakoak dira: Altsasun agorrilaren 27tik 30era, asteartetik ostiralera, aurreneko hiru egunak arratsalde (17:00-20:30) eta atzena arratsalde (09:30-13:00); eta Etxarri Aranatzaren 18an eta 25ean, arratsalde. Emaile egiteko beste aukera Iruñeko Odol Bankutik pasatzea da, Nafarroako Ospitale Guneak larrialdien eraikinarekin parean dago.



ODOL EMATEAK 2018



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 12

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

LARUNBATA 13

ALTSASU Altsasu-Irurtzun-Etxarri-Urbasa-Altsasu 145 km-ko ibilbidea eginen du Barranka txirrindula taldeko errepide atalak.
08:00etan, BM-ko aparkalekutik.

IGANDEA 14

ALTSASU Auntzetxe, Kipular,

Urdalur, Txurrukupunta. Naparaitz, Gazteluberri, Erkuden. Altsasuko Mendigoizaleen ibilaldia.
07:00etan, egoitzatik.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 15

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea.
12:00etan, udaletxe parean.

ASTEARTEA 16

IRURTZUN Udako zinema. *Campeones* filmaren emanaldia.
22:00etan, Foru plazan.

ASTEAZKENA 17

ETXARRI ARANATZ Gozamenez. Ur festa goxoa: bainua eta ur jokoak, afaria eta musika.

21:00etan, igerilekuan.

OSTEGUNA 18

BAKAIKU Dantza ikastaroa Ernestorekin. Bakaikuko Etxea barnetegiak antolatuta.
17:00etan, barnetegian.

ETXARRI ARANATZ Estalopeko hotsak: Fran eta Zuriñe Hesian taldeko kideak akustikoan.
20:00etan, kultur etxeko estalopean.

OLAZTI Kultur 2019. *Baobabs Will Destroy You Planet* taldearen kontzertua.
20:00etan, Sarasate plazan.



ARBIZU Xabi Bandiniren *Begibakarraren bidaia* kontzertua.
21:45tan, ekokanpinean.



UTZITAKOA

IRURTZUN Fleury Merogisen preso dagoen Itziar Morenoren margolanen erakusketa.
Ekainaren 16tik uztailaren 30era, Pikuxar euskal txokoan.

ZORION AGURRAK



Markel
Zorionak Markel!!
ayatu die zuteko egun jatorrak: oporrak, igerilekure fan...ta Sanferminetako 10ien 6 urte beteko ttuzunes elkarrekin ospatuko diau lagun ta etxekuekin. Muxu asko! Zu famelikuek



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Fax: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

HARREMANAK

**Sakanatik Iruñara goi-
zero lanera joateko
kotxe bila dabilen gaz-
te bat naiz.** Kepa 648 760
567

LEHIAKETAK

**Egile berrientzako
Iruñeko Udalaren XXIX.
Euskarazko Literatur
lehiaketa:** parte hartu
ahalko dute nafar egileek
edo nafarrak izan gabe,
helbidea Nafarroan dute-
nek. Poesia, Narrazioa
eta Bertso-paperak mo-
dalitateak. Lan bana
modalitate bakoitzeko.
Lanak aurkezteko epea
2019ko azaroaren 5ean
amaitzen da. Informazio
gehiago [www.iruñakultu-
rada.eus](http://www.iruñakultu-
rada.eus) helbidean.

OHARRAK

**Altsasuko festetan
2018ko kintari harrera:**
Irailaren 13an, goizeko
10:30an 2018. urtean
jaiotako altsasuarrei har-
rera egingo zaie udaletxe
aurrean. Erroldatuta dau-
den haurrek gonbidapena
jasoko dute etxean. Eroldatuta ez dauden kasuan, gurasoek agorrila-
ren 24a baino lehen izena
eman dezakete udale-
txean zapi jaso eta kin-
taren lehen argazkia
egiteko.

**Olaztikoa haurrenako
festa zapi:** azken urtean
jaiotako haurrei Santa Ana
festetara ongi etorria
emateko udalak zapi
oparitutako die. Zapi jaso
nahi duten gurasoek uda-

letxean eman dezakete
izena uztailaren 17ra arte.

**Olaztikoa goitibeherak
2019:** uztailak 27, larun-
bata, 17:00etan. Izena
eman gaztetxean eta hasi
zurea prestatzen!!

**Olaztikoa festetako baz-
kariak:** hilaren 26an,
ostiralean, 14:30ean,
haurrenako (7 urtetik
beherakoak heldu batek
lagunduta) eta jubilatuen-
dako bazkari bana izanen
da. Aurrenekorako txar-
telak (2 euro) udaletxean
jaso daitezke. Atzenaren-
dako udaletxean eta Ka-
miogaino jubilatuen elkar-
tean (9 euro). Herri baz-
karia hilaren 28an, dome-
kan, izanen da. Txartelak
udaletxean eskura daitez-
ke 14 urtera arte 5 euro,
helduek 15. Txartelak
hilaren 22ra arte lortu
daitezke.

**Irurtzungo jaietako Kal-
derete bazkari herrikoia
eta lehiaketa:** bazkarira
joateko udaletxean izena
ematea beharrezkoa da,
uztailaren 17ra arte (hau
barne). Lehiaketa parte
hartzeko inskripzioa uz-
tailaren 19an, 13:00ak
arte, udaletxeko arku-
pean.

**Lakuntzako festetako
zapien banaketa:**
2018. urtean jaio eta La-
kuntzan erroldatuta ez
dauden haurrek jaietan
zapi jaso nahi badute,
Udaletxean izena eman
beharko dute uztailaren
19a baino lehen.

11/12 SUMARIOA: 47
auzipetu hiru bat hilabetez
Madrilen epaituko dituzte.

337.462 euroko gastuak
izan dituzte. Horri aurre
egiteko diru ekarpenak
eskatu dituzte. Horiek
Laboral Kutxaren ES82
3035 0057 9205 7005
9033 kontu korrontean
sartu daitezke.

**Sakana Trenaren alde
AHTrik Ez plataforma-
koak asteartero,**
19:00etan, elkartzen dira.
Bilerak Sakanako herri
ezberdinetan txandakatu-
egiten dira. Informazio
gehiago "Sakana Tren
Sozialaren alde" Face-
book profilean.

Bidelagun izan nahi?
Mintzakide programaren
bidez euskara praktika-
tzera elkartzen dira hiz-
kuntza ikasten ari direnak
eta hizketatzeko ohitura
dutenak. Euskaldun ba-
tekin, bidelagun batekin
aritzen dira. Bidelagun
izan nahi duzu? 600 482
024 telefonoan edo AE-
Kren Itsasi euskaltegian
duzu informazio guztia
guztia.

**Crowdfunding Kanpai-
na:** Aritz Ganboa de Migel
artzain-gaztagile arba-
zuarraren erroldan parte
hartzera gonbidatuta
zaude. Arruazutik Izaba-
raino mendi lasterketa eta
gazta trukaketa "Bideak"
dokumentalean jasotzeko
kanpaina laguntzeko diru
bilketa egiten ari dira.
Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eus/>
[eu/crowdfunding-kanpai-
na](http://eu/crowdfunding-kanpai-
na) web-gunean.

www.iragarkilaburak.eus

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.


ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 12




Goiza eguzkitsua izango da, baina behe-lainoarekin esna gaitzeko. Ipar haizearen ondorioz ez dira tenperatura oso altuak izango.

Larunbata, 13




Goibel esnatuko da eguna. Lainotsu egongo da egun guztian zehar, eta euria ere bota dezake. Hau dela eta, tenperaturak ez dira igoko.

Igandea, 14



Berriro ere egun goibela izango dugu, baina egunak aurrera joan ahala, hobera egingo du eta eguzkia ager daiteke.

Astelehena, 15



Giro garbi eta ederra izango dugu astelehenean. Ipar haizeak noizbehinka gogor jo lezake eta horrek tenperatura freskatuko du.

Heriotza
oharrrak

Despeditu berri duzun
hurbileko pertsona
horren bizitzaren iruzkina
argitaratzeko aukera
ematen dizu Guaixek.

Heriotza-oharra argitaratzeko baldintzak

Testuak gehienez 1900 karaktere izan behar ditu, hutsuneak barne. Bat eta bakarra onartuko da, ez baitira kapituluak onartuko. Idatzi guztiak egilearen izen-abizenekin argitaratuko dira. Testuak euskaraz idatziak bidali behar dira. Heriotzaren eta testu bidalketaren artean gutxienez aste bateko tartea egon behar du. Espazio antolaketa dela-eta GUAIXEK eskubidea du jasotako testuaren argitalpena hurrengo astera atzeratzeko. Hala balitz, idatzia bidali duenari jakinaraziko zaio. Heriotza-oharra bidaltzen duenak testuarekin batera honakoak bidali behar ditu: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Idatzia helaratzeko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

JAIOTZAK

- **Aratz Crespo Iriarte**, uztailaren 2an Altsasun
- **Eli Igoa Garziandia**, uztailaren 4an Etxarri Aranatz

HERIOTZAK

- **Simon Maiza Mendiñueta**, uztailaren 4an Arbizun
- **Fernando Andueza Bikondo**, uztailaren 5ean Arruazun
- **Tomasa Inac Gomara**, uztailaren 6an Altsasun
- **Viviana Plasencia Palacin**, uztailaren 8an Olaztin
- **Enedina Aragon Garziandia**, uztailaren 9an Uhart Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN
DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo.eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGAI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 - www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

✉ @Grupolrache

f Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Zabaletak eta Ezkurdiak finalean egon nahi dute

PILOTA Sanferminetako Binakako Torneoan, A multzoan atzo gauean erabaki zen finalista, Irribarria-Martija, Olaizola II.a-Albisu edo Bengoetxea-Imaz. B multzoan gaur Zabaletak eta Ezkurdiak Altuna eta Galarza dituzte aurkari; bertatik aterako da finalista

Gutxika Sanferminetako Binakako Torneoa argia ikusten ari da. A multzoan, asteartean A multzoko 2. jardunaldia jokatu zen, eta lehen jardunaldian Bengoetxearen eta Imazen kontra galdu ondoren (18 eta 22), Irribarriak eta Martijak garaipen garrantzitsua lortu zuten Olaizola II.aren eta Albisuren kontra (22 eta 12). Akats gutxi egin zituzten Irribarriak eta Martijak, eta atzeko koadroetan oso ziur ibili zen Etxeberrikoa, dominatzen, Albisuk ederki sufritzen zuen bitartean. Horrela, urrezko puntu bat lortu zuten Irribarriak eta Martijak, eta finalera sailkatzeko aukerari eutsi zioten.

A multzoan atzo erabaki zen finalista

Atzo, ostegun gauean, aurretik puntu bat zuten Bengoetxeak eta Imazek, punturik gabe zeuden Olaizola II.aren eta Albisuren kontra jokatu zuten partidak erabaki zuen A multzoko fina-



Bikote sakandarra ikusgarri aritu zen lehen partidari, Zabaleta bereziki.

lista, baina Guaixeko erredakzioa ixterakoan partida ez zen hasi ere egin. Bengoetxeak eta Imazek irabaziz gero, zuzenean sailkatuko lirarteke finalerako; Olaizolak eta Albisuk irabaziz gero, hiru bikoak puntu banarekin

berdinduta leudeke, eta tanteoak erabakiko luke.

B multzoan Ezkurdiak-Zabaleta Altuna-Galarzaren kontra gaur
B multzoan, lehendabiziko jardunaldian Ezkurdiak eta Zaba-

letak 7 tantotan utzi zituzten Urrutikoetxea eta Mariezkurrena II.a eta lehen puntua lortu zuten, ikusgarri aritu eta gero. Zabaleta izan zen jaun eta jabe. Asteazkenean, Altuna III.aren eta Ladis Galarzaren kontra aritu ziren Urrutikoetxea ordezkatu zuen Artola eta Mariezkurrena. Partida oso lehiatua, Altuna eta Galarzak lortu zuten puntua, Artolari eta Mariezkurrenari 22 eta 18 irabazita. Hor-taz, Baikoko bikoa aukerarik gabe gelditu da. B multzoan zein biko pasako den finalera gaur, ostiralean Ezkurdiak eta Zabaletak Altuna III.aren eta Ladis Galarzaren kontra jokatu den partidak erabakiko du (22:15, ETB1).

Marco Real upategien erronka

Uztailaren 13an, larunbatekin, Marco Real upategien erronka jokatu da, Asperen eta Baiko pilotaren arteko lehia. Lau t'erdian P. Etcheberria (Aspe) Lasoren kontra (Baiko) lehiatuko da; bina Jakak eta Rezustak (Aspe) Baikok oraindik ez duen bikoa izango du aurkari; eta buruz buruan Zabala da Aspeko ordezkaria eta Baikok oraindik ez du berea aukeratu.

Sarrera guztiak agortuta

Sanferminetako pilota jaialdiez gozatzea geroz eta konplikatuago da, berehala saltzen baitira sarrerak. Aspaldi saldu ziren jaialdi guztietako sarrerak.

Irati Igoa eta Udane Vergara finalerdietan erori ziren

PALA / PILOTA Igoa Peñen Pala Txapelketako finalerdian erori zen eta Vergara Master Cupean

Asteazken arratsaldean Iruñeko Peñek antolatutako Sanferminetako Txapelketako finalurrekoak jokatu ziren. Emakumezkoen Pala Txapelketan, Irati Igoa Sesma etxarriarrak Saraguetarekin jokatu zuen, Espinalen eta Ardanzaren kontra. Pare pare aritu ziren bi bikoak, eta lehia biziko partida izan zen. Azkenean, eta soilik 3 tantoren aldearekin, Espinal eta Ardanz gailendu ziren, 27 eta 30, eta txapelketatik kanpo utzi zituzten Igoa eta Saraguetak.

Bestalde, asteburuan Sanferminetako Emakume Master Cup pilota txapelketako finala jokatu zen Lizarran. 18 urtez azpiko txapelketan, Udane Vergarak eta Garazi Lasak Eider Salbide eta Olatz Ruiz de Larremendi izan zituzten aurkari. Bigarrenek erraz eskuratu zuten bihar arratsaldean jokatu diren finale-rako txartela, 18 eta 8 irabazi eta gero.

Herrien Arteko finala Gorritiren Donezteberendako

PILOTA Bost tantoren aldea aterata gailendu zitzaion Doneztebeko Erreka Ganboaren Iruñeko Oberenari

Animoak bero-bero zeuden ostiralean Labriten jokaturako Herrien Arteko Pilota Txapelketako finalean. Doneztebeko Erreka klubak eta Iruñeko Oberenak jokatu zituzten finalak, eta tentsio handiko partidetan, azkenean titulua Donezteberendako izan zen, 5 tanto eskasen aldearekin. Txapelketan bi pilotari sakandarra aritu ziren: Ganboa jubenil arbizuarra, Oberenarekin, eta Jon Gorriti pilotari uhartearra, Donezteberekin, maila nagusian.

Labrit pilotalekua bete egin zen Herrien Arteko finalerako.

Tentsio handiko finala izan zen, lau kategoriako finaletan: kimuak, haurrak, jubenilak eta seniorrak.

Jubeniletan Oberenako Oskoz eta Ganboa izan ziren onenak

Finala Donezteberen alde jarri zen, kimuetan 18 eta 9 eta haurren mailan 18 eta 9 gailendu baitziren Erreka klubeko pilotariak. Baina jubeniletan Oberenako Oskoz eta Ganboa arbizuarra faboritoak zirela jakina zen, eta ez zen sorpresarik egon: 22 eta 10 irabazi zuten Oberenakoek, eta Iruña

distantziak txikitzen hasi zen. Beraz, seniorren partidak erabakiko zuen dena. Kalkuluak egiten hasita, Errekako Salaberriak eta Gorritik nahiko zuten 17 tanto egitea txapelketa Doneztebek irabazteko. Iruñeak irabazteko, aldiz, Oberenako Matak eta Iruritak 15 eta 22 irabazi beharra zuten.

Seniorren partidak erabaki zuen

Tentsio izugarriko partidari, seniorretan Oberenaren alde jarri zen partida, 6 eta 14 aurreratu baitziren Mata eta Irurita, baina Gorritik lortutako tanto bati esker sarea berreskuratu zuten Errekakoek, eta atsedena eskatu eta gero, markagailuan 10 eta 14 gerturatzea lortu zuten. 15 eta 20 aurreratu ziren Mata eta Irurita, baina Salaberriak 16. tantoa egitea lortu zuen. Ho-



Oberenak eta Doneztebek talde argazkia atera zuten. UTZITAKOA

rrek airea eman zien Doneztebekoei, finala irabazita zutela baitzekiten, eta, azkenean, nahiz eta seniorren partidari 21 eta 22 galdu, Herrien Arteko Txapelketako txapela lortu zuen Doneztebeko Errekak.

GANBOAK BERE PARTIDA IRABAZI ZUEN, BAINA OBERENAK EZIN IZAN ZUEN TXAPELA JANTZI



Lasarteren lana. FACEBOOK

HERRI KIROLAK Mikel Lasarte bigarrena motozerra txapelketan

Asteartean San Fermin Herri Kirol Jaialdien barruan XXI. San Fermin Motozerrako Txapelketa jokatu zen. Hiru partaide izan zituen txapelketak: Sakanako Harrijasotze Eskolako arduradun Mikel Lasarte, Irurtzungo bizilaguna, Arostegiko Peio Kañamare eta Azkoiengo Jan Asin. 30 minutuko bi txanda izan zituzten, eta txanda bakoitzean irudi bat egin behar zuten. Iruñeko Arte Eskolako ikasleek osatu zuten epaimahaia, eta euren ustetan Juan Asinek egindako lanak -enborretik tximeleta ederrak atera zituen- izan ziren onenak. Txapeldunordea Mikel Lasarte izan zen eta hirugarren postuan Peio Kañamare aroste-giarra sailkatu zen.

Olabide eta Irigoien txapeldunordeak

HERRI KIROLAK Asteazkenean Nafarroako Kadete Mailako Trontza Txapelketa jokatu zen sanferminetan eta Iñigo Aritzako bikoa bigarrena sailkatu zen, Andra Mari ikastolako Altxelai eta Carreñoren aurretik

Asteazkenean Nafarroako Kadete Mailako Trontza Txapelketa jokatu zen Iruñeko Foru plazan, San Fermin Herri Kirol Jaialdien barruan. Sei bikote lehiatu ziren, horietatik hiru sakandarrak: Inhar Olabide eta Adur Irigoien (Iñigo Aritza ikastola), Pello Altxelai eta Oinatz Carreño (Andra Mari ikastola) eta Urtzi Galartza eta Adur Lizarraga (Andra Mari). Etxanda jarritako metroko enborrari 10 epai edo mozte egin behar izan zizkieten 6 bikoek.

Segundo eskasak

Azkarrenak Basaburua-Baztan-go Iraitz Iturralde eta Jon Irigoien izan ziren. 10 mozteak 6 minutu eta 2 segundotan egin zituzten. Atzean, bigarren posturako lehia oso estua izan zen. Txapeldunek baino 2 segundo geroago osatu baitzuten lana. Laugarrenak Andra Mariko Urtzi Galartza eta Adur Lizarraga izan ziren (6:33), bosgarrenak Araxes taldeko Manex Saralegi Altxelai eta Oinatz Carreñok



Nafarroako kadeteen trontza txapeldunak, lanean. EDUARDO SANZ

osatu zuten, (6:25), aurrekoek baino 2 segundo geroago osatu baitzuten lana.

Laugarrenak Andra Mariko Urtzi Galartza eta Adur Lizarraga izan ziren (6:33), bosgarrenak Araxes taldeko Manex Saralegi

eta Oier Goñi (6:43) eta seigarrenak Araxesko Leire Olano eta Eneko Rekalde (7:44). Bukatzeko, kimuen mailako herri kirol proba konbinatuaren erakustaldia egin zuten Andra Marik, Berriozarrek, Araxesek eta Igantzik.

Jon Irañeta Nafarroako Harrijasotzean

Bihar, uztailaren 13an, larunbatarekin, Nafarroako Harrijasotze Txapelketa jokatu da eguerditik aurrera Iruñeko Foru plazan, San Fermin Herri Kirol Jaialdien barruan. Lau harrijasotzailek hartuko dute parte, tartean Mikel Lasarteren aginduetara Sakanako Harrijasotze Eskolan trebatzen den Jon Irañeta irurtzundarrak. Josetxo Urrutia leitzarra, Albaro Zugarrondo iruindarra eta Xabier Ariztegi "Santxin" etxalartarra izango ditu arerio.

Hiru harrirekin -125 kiloko zilindroa, 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola- bi minutuko txandak egin beharko dituzte harrijasotzaileek, eta jasoaldi gehien egiten dituen Nafarroako txapelduna izango da.

Biharko herri kirol jaialdian, motozerra erakustaldia egingo du Mikel Lasartek; motozerrarekin egurrezko irudi ederrak egingo ditu.

Akabo futbol campusa

FUTBOLA Sakanako Mankomunitateak antolatutako futbol campusa gaur despedituko da. Uharte Arakilgo futbol zelaian gauzatu da campusa. Aurreko astean 2007-2009 urte artean jaiotako 39 neska-mutiko trebatu ziren futbolekin, eta aste honetan 2004-2006 urteen artean jaiotako 13 mutil, Iokin Lobo eta Oier Gastesi monitoreen aginduetara.



UTZITAKOA



Nafarroako Txirrindularitza selekzioa Cheste zirkuituan, tartean txirrindulari sakandarrak. NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Nahia Imazek bi domina ekarri ditu Valentziatik

TXIRRINDULARITZA Asteburuan Eskola Adineko Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu ziren Valentzian eta emakumeen kadeteen selekzioko Nahia Imazek taldekako erlojupekoko saria eta lasterketako taldekako brontzezko saria lortu zituen

Eskola Adineko Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu ziren asteburuan Valentzian. Nafarroako selekzioarekin makina bat txirrindulari sakandar aritu ziren, Burunda klubeko Quesos Albeniz eta Aralar klubeko Sakana Group taldekoak, eta emaitza bikainak lortuta, pozik itzuli dira Valentziatik.

Haurren gizonezkoetan Nafarroa ginkanan hirugarrena

Haurren mailan, emakumezkoetan, Nafarroako selekzioko Bazarne Arregi 57.a sailkatu zen lasterketan eta ginkanan 45.a. Kadeteen gizonezkoen lasterketan, Eneko Zelaia 12.a iritsi zen helmugara, Mikel Regil 22.a eta

Aritz Oiarbide 58.a. Ginkanan, Mikel Regil 6.a sailkatu zen, Eneko Zelaia 14.a eta Aritz Oiarbide 28.a, eta aipatzekoa da taldeka Nafarroako gizonezkoen selekzioak ginkanako proban zilarrezko domina lortu zuela.

Emakumezkoen kadeteetan bi domina

Kadeteetan, emakumezkoetan, Nafarroako txirrindulariak ihesaldi guztietan sartu ziren, baina azkenean esprintean erabaki zen lasterketa eta Nahia Imaz 10.a sailkatu zen. Taldekako sailkapenean Nafarroa hirugarrena sailkatu zen eta brontzezko domina jaso zuen. Eta gizonezkoen kadeteetan Hugo Aznar eguneko

ihesaldian sartu zen baina, azkenean, tropelak irentsi zituen. Hala ere, Hugo Aznar 5.a sailkatu zen, Mikel Uncilla 33.a eta Martxel Etxeberrria 36.a.

Kadeteen erlojupekoari dago-kionez, emakumezkoen taldekako erlojupekoan Nafarroako selekzioak garaipena lortu zuen –Nahia Imaz, Naroa Fernandez, Laia Puigdefabregas eta Saioa Organbide–. Ikusgarri aritu ziren emakumezkoak, Nahia Imaz tartean. Kadeteen gizonezkoen taldekako erlojupekoan Nafarroako selekzioa 6.a izan zen. Mikel Uncillak, Xabi Zabalak, Martxel Etxeberrriak eta Hugo Aznarrek osatu zuten Nafarroako gizonezkoen selekzioa.

Kadeteen Iturmendi Saria jokatu da lehenengoz

TXIRRINDULARITZA Burunda Txirrindularitza taldeak antolatu du, asteazkenean, Iturmendiko festetan

Iturmendik kadeteen mailako lasterketa hartuko du lehenengoz. Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatuta, asteazkenean, uztailaren 17an jokatu da lasterketa, Iturmendiko festetan, arratsaldeko 17:30ean.

Ibilbidea

Txirrindulariek Etxarri Aranatzko bidea hartuko dute. Han, buelta hartu eta Iturmenditik pasako dira, bariantetik jaitsi eta Bakaikun ezkerrean eginez, atzera ere Etxarri Aranatzera

helduko dira. Berrir buelta berbera egingo dute: Iturmendi, bariantea, Etxarri Aranatz eta Iturmendi, baina kasu honetan, Iturmendira iristerakoan aurrera egingo dute, eta Ziordiraino heldu. Han, buelta hartuko dute, Olaztin sartu eta Altamira igoko dute, Altamira jaitsi eta Iturmendiko helmugarantz abiatzeko.

Proban Burundako Quesos Albeniz eta Aralarako Sakana Group talde sakandarrek hartuko dute parte.



Gorka Izagirre, zalez inguratua. GETTY IMAGES - ASTANA

Tourra: lehendabiziko astea gainditzear eta Pirinioak ate joka

TXIRRINDULARITZA Asteazkenean iritsiko da Pirinioetara eta ostegunean erlojupekoa jokatu da Pauen

100. Frantziako Tourra hasi zela aste bat beteko da larunbatean. Taldekako erlojupekoaz gain, etapa lauak izan dira orain arte jokatuak gehienak, atzokoa izan ezik, goi-mendiko lehen etapa gainditu behar izan baitzuten, faboritoen lehen test handia. 160 kilometrotan, lehen mailako lau mendate, bigarren mailako bat eta hirugarren mailako bi zituen, eta etapa lehen mailako La Planche des Belles Fillesen despiditu zen, %8,7ko batez besteko pendiza duena, 2. mailako Chevreres jaitsi eta berehala igo beharrekoa. Guaixeko erredakzioa ixterako unean ez genuen emaitzaren berririk, baina ziur sailkapen orokorrean eragina izango zuela atzokoak. Izen handiko igotzaile handiek irabazi izan dute bertan –Froome, Aru eta Nibali, artean– eta atzo ere eskalatzaile handien mugimendua espero zen. Erasotzea edo eustea, hori zen faborito handien atzoko zalantza. Ordura arteko liderrak, Julian Alaphilippe, maillota mantentzen saiatuko zela iragarri zuen, baina onartu zuen lan zaila zuela aurretik.

Erbiti eta Izagirre, euren liderren ezkutari fidelak

Imanol Erbitik (Movistar Team) eta Gorka Izagirrek (Astana) ongi eutsi diote Tourreko lehen etapa hauei. Euren liderrendako –Mikel Landa eta Nairo Quintana (Movistar) eta Fuglsang (Astana)– primerako lana egiten ari dira biak.

Asteazkenean Pirinioak eta ostegunean Pauko erlojupekoa

Astelehenean atsedean hartuko du Tourrak, asteartean Albi eta Toulouse arteko etapa laua jokatu da eta asteazkenean iritsiko da Tourra Pirinioetara, Toulousen hasi eta Bagnères de Bigorren despidituko den etapa menditsuarekin (209,5 km). Lehen mailako Col de Peyresourde eta kategoria bereziko Hourquette d'Ancizan gainditu beharko dituzte txirrindulariek. Osteguneko etapa herri euskaldunetan jokatu da, Pauen, bertan hasiera eta bukaera duen 27,2 km-ko erlojupeko indibidualari egin beharko baitiote aurre txirrindulariek. Eta hurrengo astebururako Pirinioetako etapak izango dira jokoan: Tourmalet, Col de Montsegur, Port de Lers, Foix...

Beraz, faboritoak erasora jo beharko dute, ez dago zalantzarik. Sailkapenean tarteak ateratzeko etapak ditugu aurretik eta ikusizuna pil-pilean dago. Le Grand de Bouclen zale euskaldunek berea jarriko dute, Pirinioak koloreztatu eta girotuko baitituzte. Jakina, Euskal Herriko selekzioaren aldeko eta Euskal Herriari buruzko aldarrikapenak ez dira faltako, Pauko erlojupekoan baita ere, eta mota guztietako deialdiak egin dira.

Sakandar askok ere Pirinioetara eta Pauera joko dute Tourra ikusi eta txirrindulari euskaldunak animatzera. Auto ilarak ekin eta portuetara iristeko garaiz ateratzeko gomendioa egin du antolakuntzak.



Aurreko urtean Olaztiko festetan antolatutako goitibehera txapelketak harrera oso ona izan zuen. UTZITAKOA

"Goitibeherak berreskuratu nahi ditugu"

IBAN LOPEZ DE GOIKOETXEA SAKANA MOTORSPORT ESKUDERIA

GOITIBEHERAK Sakana Motorsportek eta Olaztiko Gazte Asanbladak Goitibeherak antolatu dituzte Olaztiko festetarako "Noski baietz!" lelopean. Zurea prest al duzu?

Maidar Betelu-Eneida Carreño OLAZTI Goitibehera, berez, inertziaz jaisten den gailu bat da.

Denok ezagutzen ditugu goitibeherak edo karrikotxeak. Garai batean errodamenduekin egiten ziren eta herri gehienetan antolatzen ziren goitibehera jaitsierak, oso ohikoak ziren. Orduan bospasei pertsona zihoazen gainean, beste historia bat zen. Ez zuten gauregunekoen abiadura hartzen, baina akaso ikusteko edo gidatzeko ikusgarriagoak ziren.

Mota askotakoak daude, ezta?

Gaur egun denetariko goitibeherak daude, modalitate ugari: errodamenduzkoak, gurpilezkoak, bizikleta antzekoak, patinen antzekoak... Askok garatu dira.

Batzuk xumeak dira, baina beste batzuk izugarriko lana dutenak: motorren suspentsioak, frenoak, diskoko frenoak eta halakoak erabiltzen dituztenak... Jendeak buruari eragiten dio.

Abiadura gehiago hartzeko bidean izugarri hobetu dira goitibeherak.

Bai. Badaude beira-zuntzaz eginiko kupulak dituzten goitibeherak, aireari erresistentzia gutxiago izateko, eta abiadura

"SAKANDAR GUZTIAK EUREN GOITIBEHERA PRESTATZERA ANIMATZEN DITUGU, OLAZTIN ARITZEKO"

gehiago lortzeko hainbat eta hainbat asmakuntza. Orain dela 12 urtera arte goitibehera ez zegoen kirol bezala katalogatuta, baina Iruñeko talde batek lortu zuen Espainiako I. Deporte de Inercia izeneko federazioa sortzea eta Open de España de Deportes de Inercia izeneko txapelketa antolatu zuen. Gogoratzen dut, 2008an edo 2009an olaztiar batzuk finalera sailkatu eta Espainiako txapeldunak izan zirela.

Olaztin zaletasun handia dago. Egia esan, Olaztin abiadurarekin lotura duen guztiak du arrakasta.

Beno, akaso Urbasako Igoerak asko eragin izan du. Baina ez bakarrik olaztiarrek, sakandarrak denetariko karrerak ezagu-

tu izan ditugu. Karsak, motorrak... gorpila daukan guztiarekin zaletasun handia dago Sakanan. Baita goitibehera ere.

Olaztiko festetako larunbatean, 17:00etan, goitibeherak antolatu dituzue. Zergatik?

Goitibehera lasterketa aurreko urtean antolatu genuen lehen-dabizikoz; Urbasako Igoeraren 50. urtemugaren ospakizunen barruan prestatu genuen, Olaztiko Gazte Asanbladarekin batera, elkarlanean. Jendea oso pozik geratu zen, eta hori ikusita, aurreten bigarren antolatu dugu.

Aurretik Olaztiko gaztetxeak hainbat goitibehera lasterketa antolatzen zituen Santa Ana festetan, San Migeletan, gaztetxe egunean... Baina duela 10 urte inguru egiteari utzi zitzaion. Horregatik ere Olaztiko Gazte Asanbladarekin elkarlanean goitibeherak berreskuratzea erabaki genuen iaz, eta aspaldiko ohitura berreskuratu genuen. **Goitibehera lasterketa horretarako aurretik izena eman daiteke?**

Bai, Olaztiko gaztetxean eman daiteke izena. Bestela, probaren egunean bertan, Olaztiko festetako larunbatean, 16:00etatik aurrera eman daiteke izena gaztetxean. Hemendik sakandar guztiak euren goitibehera prestatzera animatzen ditugu. Gure proba herrikoia da, eta bi kategoria ditugu, helduena eta haurrena. Bakoitzak presta dezala bere goitibehera dituen baliabideekin, ahal duen hoberena, bere irudimena erabiliz.

Zer nolako goitibeherak ikusi ahal izan ziren aurreko urtean?

Horrenbeste urte goitibehera probarik egon gabe egon eta gero, parte-hartze handia egon zen: 20ren bat haur eta 12 heldu inguru. Denetariko goitibeherak zeuden: edozein katxarrokekin egindakoak; helduei eskatutako goitibeherak; patinekin egindakoak; bizikleta gurpilekin egindakoak... Sei urteko haur bat ere jaitsi zen. Finean, jendearen irudimena ikusten da. Hori transmititu nahi dugu, izan ere, goitibeheren balioa da hori, daukazunarekin moldatzearena. Azkenean, igual goitibehera bat

moldatzen oso trebea ez dena agian oso trebea izan daiteke goitia gidatzen, edo alderantziz, kristoren katxarroa duenak ez daki ondo eramaten. Pike sano hori dago, eta polita da.

Nondik izango da jaitsiera?

Goiko auzotik, San Sebastian auzotik, ermitatik abiatuta, herri guztia gurutzatzen du. Goiko auzoa zeharkatu, Kale deritzogun kale estu batetik pasatzen da, ondoren Aixeleku paretik, eta frontoia zeharkatu eta herriko beheko auzoraino doa, autobiairen azpiraino. Kilometro pasatxokoa da, nahiko luzea. Aurretik egin izan dira eliza paretik behera joanez, aldapa gehiago dago baina motzagoa da. Guk erabaki genuen goiko auzotik egitea herri erditik pasatzen delako, ikusgarriagoa delako eta parte-hartzeko errazagoa delako. Egia esan, ez da oso aldapa handia, tarteka baditu aldapa batzuk, baina baita eremu lauak ere, goitibehera bultzatu egin behar den tartearak... denetatik dauka.

Sakana Motorsport eskuderiakoe abuztuaren 31n Eskufreno Rock antolatu duzue.

Duela 9 urte, 2011n, sortu zen Sakana Motorsport eskuderia, eta lehenengo urtea izan zen eskuderiak Urbasako Igoera antolatu zuena. Diru iturri moduan kontzertu bat antolatu genuen, Eskufreno Rock. Eta aurren, abuztuaren 31n, 3. Eskufreno Rock jaialdia prestatu dugu. Iaz Olaztiko Kultur Etxean mustu genuen Urbasa Igoerak 50 urte izeneko erakusketa ikusgai egongo da Clinker tabernan, eta 17:00etan gaztetxeko futbito pistatan auto eta moto klasikoekin topaketa izanen da. Gauean, 21:00etan, afaria izanen da Clinkerren eta lasterketarako bideoak jarriko ditugu. Eta 21:30ean kontzertuak antolatu ditugu gaztetxean, bi talde sakandar ezagunekin: Los del Rayo eta La Banda del jefe Bigun. Txartelak salgai daude Clinker tabernan edo 682 261 910 telefonoan (afaria eta kontzertuak, 25 euro). Dirua aurtengo Urbasako Igoera antolatzen bideratuko da. Iaz ezin izan genuen proba antolatu, gure eskuetatik kanpo zegoen azken orduko arazo batengatik, baina lanak eginda zeuden, dirua aurreratuta, eta diru asko galdu zen. Aurren urriaren 5ean jokatuko den 2019ko Urbasako Igoerari bultzada emateko antolatu dugu 3. Eskufreno Rock.

"GOITIBEHEREN BALIOA SUSTATU NAHI DUGU: DAUKAZUNAREKIN MOLDATZEARENA"

"Hiru kirol batera direlako gustatzen zait triatloia"

DAYANA PERCAZ MAYOR TRIATLOIA

TRIAITOIA Zelandi kiroldegiko monitore-soroslea da Dayana Percaz, eta aurten hasi da triatloian. Donostiako 11. Emakumezkoen Triatloian zaspigarrena sailkatu zen

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Beti kirolari lotuta ibili zara.

Txikitan beti irristaketa egin izan dut eta argi nuen kirolletara bideratu nahi nituela ikasketak. Horrela, erdi mailako eta goi mailako ikasketak egin nituen. Aktibitate fisikoko moduluak, erdi mailan, gehienbat kanpoan egiten diren kirolak dira: txirrindularitza, mendia, zaldia... eta goi mailakoak izaten dira kiroldegietan gehiago ematen direnak: igerilekua, gimnasioko aretoan ibiltzeko makinetan, gehienbat fitnesseko arloa ematen da. Orain Altsasuko Zelandi kiroldegian lan egiten dut. Aquagym klaseak, mantenu-soinketa, gimnasiako-zirkuituak... eta igerilekuetan ere ikastaroren bat eman dut. Denetatik.

Horretaz gain soroslea zara.

Bai, monitore-soroslea naiz Zelandin, eta une honetan Dantzalekuko igerilekuetan sorosle nago ere. Soroslearena lan polita da: jendearekin erlazioa dugu, kanpoan gaude, kalean, udako giroak alaitasun gehiago dauka. Okerrena da udako egun berotsuetan igerilekua jendez betetzen dela eta atentzio gehiago jarri behar dugula. Dena den, beti erne ibili behar da, batez ere umeekin. **Honekin nahikoa ez eta zure bizitza pribatuan kirolean ibiltzen zara...**



Dayana Percaz, igeriketa segmentua osatu eta gero. UTZITAKOA

(kar kar) Beti esaten didate: "ez duzu nahikoa lanean egiten duzunarekin?" Baina ezberdina da. Nik klasea ematen dudanean mugitzen naiz baina ez da niretako egingo nukeen entrenamendu bat bezala. Bizikletan edo korrikan ateratzen naizenean niretako da; beti daukat mugitzeko gogo handia.

Aurten triatloian estreinatu zara. Nola eman duzu salto hori?

Kiroldegian lanean, triatloian ibiltzen direnak entrenatzen ikusi izan ditut. Triatloiak beti erakarri nau eta aurten proba-

tzera animatu naiz. Azken finean, bertan daukat igerilekua, entrenatzeko, korrika egitea gustatzen zait eta baita bizikleta ere. Eta animatu naiz. Bestalde, 15 urtera arte irristaketan lehiatu nintzen, eta gero ikasketengatik eta utzi nuen. Beti nuen lehiara bueltatzeko gauzatxo hori, eta beste zer edo zer probatu nahi nuen. Izan ere, hainbeste urte irristaketan ibili eta gero, azkenean ez bada ezer gehiago probatzen ez dago jakiterik beste kirolrik gustatuko zaigun. Elkar-tu ginen bi lagun eta pentsatu

genuen: goazen triatloi proba honetan izena ematera! Eta horrela hasi nintzen, poliki-poliki, presiorik gabe...

Eta ongi ikusi zenuen zure burua?

Bai, eta gero animatu nintzen proba gehiagotan aritzera. Badakizu, geure burua ongi ikusten dugunean, pixka bat gehiago entrenatzen da, hurrengo proban hobeto aritzen da, ikusten duzu hobeto zoazela eta azkenean horrek harrapatzen zaitu. Triatloi probaz gain, atletismoko lasterketa batzuetan parte hartu izan dut korrikako segmentua entrenatzeko. Izan ere triatloian zatika entrenatu behar da, igeriketa, txirrindularitza eta atletismoa, hiru kirol horiek daudenez...

Zure kabuz aritzen zara, independente. Triatloi talderen batean hastera pentsatu duzu?

Aurten probatzen nago. Ikusten badut denbora dudala eta entrenamenduak eta lana bateratu ahal ditudala, badaukat talderen batean, Sakanakoan, izena emateko ideia, baina hori aurrera begira. Momentuz aurten nire kabuz ibili, probatu, esperientzia bizi eta gero ea animatzen naizen.

Triatloiak kirol bezala bete zaitu?

Bai, hiru kirol batera direlako gustatzen zait, ez da beti berdina egoten aritu behar. Ezin baduzu bizikleta hartu, igeriketa eta korrika landu ahal dituzu eta alderantziz. Horregatik da dibertigarria, entrenamendu oso ezberdinak direlako. Askok gustatzen zait, harrapatu nau.

Kirol batetik besterako trantsizioak prestatzen laguntzeko aholkulari edo entrenatzailearen bat duzu?

Peio Bergararekin asko ibili naiz entrenatzen, eta kiroldegian ere triatloian ibiltzen diren batzuekin hitz egin izan dut. Aholku onak ematen dizkidate. Gero interneten bideo asko ikusi ditut

eta ideiak hartzen ditut. Eta probetan, begiratzen dut besteek nola egiten duten. Triatloi proba bakoitzean zerbait berria ikasten da eta poliki osatzen zoaz.

Zenbat probatan aritu zara?

Lauzpabost triatloi egin ditut, Donostian 2, Zumaian 1, Hondarribian 1... Ekainaren 29an 11. Emakumezkoen Triatloia jokatu zen Donostian, eta 350 triatletaren artean zaspigarrena sailkatu nintzen (34:47), Paula Del Pozo txapeldunetik (29:17) 5 minutura.

Zein da hurrengo helburua?

Ni supersprint distantzian aritzen naiz, distantzia laburrean. Irailean Zumaian triatloi herrikoia jokatu da -0,350 m igerian, 10 km bizikletan eta 2,5 km korrika-, eta bertan aritzea da asmoa. Luzeago begira, sprint distantziara salto egin nahi nuke, distantzia luzeagoetara.

Astelehean Sakanako Triatloi Campusa hasiko da. Gaztetxoak bertan aritzera animatuko zenituzke?

Bai, noski! Oso gomendagarria da. Hiru kirol ikasten dira, entrenatzeko beste era bat da. Haurtzaroan bakarrik kirol batekin geratu izanaren pena hori izan dut beti, beraz, umetxoak direnean hainbat kirol proba ditzatela. Gero, azkenean hartuko duzu gehien gustuko duzuna, baina probatuz gero. Kirola beti ona da gorputzerako. Korrika egiten fondoa hartzen da. Bizikleta belaunetarako oso ona da. Kiroletatik beti ateratzen da zerbait ona.

"KIROLA BETI DA ONA GORPUTZARENDAKO; UMETXOEK HAINBAT KIROL EZBERDIN PROBA DITZATELA"

Diezen Euskadi, txapelduna

SASKIBALOA Asteburuan XI.

Barakaldo Hiria Federazioen arteko Saskibaloitza Torneoak jokatu zen eta tartean Euskadiko emakumezkoen selekzioak jokatu zuen. Euskadiko selekzioarekin aritu zen Naiara Diez saskibaloitza jokalaririk altasuenak. Finalerdietan 55 eta 33 irabazi zion Euskadik Belgikari eta final handian, Espainia taldearen kontra 46 eta 58 gailendu zen Euskadi.



EUSKADIKO SASKIBALOI FEDERAZIOA

Nafarroako musikaren panorama berria

Baobabs Will Destroy Your Planet taldeak kontzertua egingen du Olaztiko eskolako jolastokian uztailaren 18an, datorren ostegunean, 20:00etan. Kultur 2019 udako programaren barruan eskainiko du kontzertua talde iruindarrak

OLAZTI - SAKANA

Udako arratsaldeak eta gauak kulturaz betetzea du helburu Nafarroako Gobernu Kultur 2019 programak. 1996. urtetik egiten da eta Nafarroako udalerriz guztietara kalitatezko programazioa eramatea ahalbidetzen du. Programaren beste helburuetako bat, gainera, Nafarroako sortzaileak ezagutaraztea eta hainbat musika estilotako tokiko artistak sustatzea. Sakanara bi proposamen ekarriko ditu 2019ko programak: uztailaren 18an, datorren ostegunean, Baobabs Will Destroy Your Planet indie taldea egonen da Olaztin eta uda bukaeran, irailaren 6an, Pink Tones rock taldea Altsasun izanen da. Gainera, Beietz! talde arbizuarra Izabako anfiteatroan kontzertua egingen du abuztuaren 9an.

Indie musika

Baobabs Will Destroy Your Planet talde iruindarra da. 2014an sortu zuten. Indie musikazaleak dira, eta Eneko eta Eymard taldeko kideak Kutxa Kultur musika festibalean "gustatzen zaigun" musika entzuten ari zirela, Eneko talde bat sortzea bururatu zitzaion: "esan zidan euskalduna zara eta gitarra jotzen duzu. Zergatik ez dugu horrelako talde bat euskaraz?". Hurrengo goizean, iritziz aldatu omen zuten galdetu nion, eta aurrera egiteko esan zidan. Hurrengo hilabetean grabatu zuten lehenengo maketa.

Printze Txikiaren esaldi bat da Baobabs Will Destroy Your Planet. Izenburu luzea eta kuriosoa. "Eneko hasieratik esan zuen izena ingelesez eta luzea izan behar zela. Bere gauzak dira". Gustatzen zitzaizkien gauzen artean Printze Txikia agertu zen.

Indie musika euskalduna egiteko sortu zen taldea. "Guri gustatzen zaigun musika da". Hortaz, doinu desberdinak eskaintzen dutela diote. "Aurretik ez zegoen euskaraz estilo honetan kantatzen



Baobabs Will Destroy Your Planet taldea Dokan egindako kontzertuan. UTZITAKOA

"INDIE MUSIKA EUSKALDUNA EGITEKO SORTU GENUEN BAOBABS TALDEA"

zuen talderik". Talde iruindarra saiatu, "eta hasi ginen". Pop edo power pos estiloan mugitzen direla dio Eymardek.

Lehenengo maketa *Zarata Mondosonoro* urteko EPA izendatu zuten eta Bilboko Kafe Antzokiko Gaztea sari berezia irabazi zuten ere. 2016an *Abbey Road* diskoa grabatu zuten Londresen. Eta iaz iritsi zen bigarren diskoa: *Argiaren abiadura*. Orain, lehenengo aldiz Kultur 2019 programan parte hartu dute, eta Olaztiko eskolako jolastokian mus-tuko dute parte hartzea uztailaren 18an, 20:00etan.

"Aurreko batean Kultur-ren parte hartzeko deitu ziguten, baina datengatik eta lanagatik ezin izan genuen". 2019an "bultzada" iritsi da. Izan ere, linbo batean mugitzen direla aitortu du Eymardek: "mugitzen gara eremu batean non euskaldunek ez dute

gure musika estilo hau asko entzuten, eta estilo hau entzuten duen jendeak ez duen euskal musika asko entzuten". Hala ere, ikustera joaten direnak "gustura" ateratzen direla esan du. "Gertatu izan zaigu kanpora joaten garenean jende gehiago egoten dela, izan ere, aurreiritzirik gabe edo joaten dira". Zenbait tokitan euskaraz entzutea "exotikoa" ikusten dutela gaineratu du.

Aretoetan jotzera ohituta dago Baobabs Will Destroy Your Planet taldea: Donostiako Dokan edo Bilboko Kafe Antzokian jo dute. Baina plazetan ere jo izan dute, Tolosan, esaterako. Sakanan lehenengo aldiz joko dute. Taldearen zaleek eta ikusleek diotenez, zuzenekoak "diskoak baino indartsuagoak dira". Izan ere, "bolumenak" laguntzen du eta agertokira ateratzen direnean asko disfrutatzen dutela esan du: "dena ematen saiatzen gara".

Indie musika euskalduna egiten du taldeak eta "panorama berri bat" eskaintzen dutela esan du abeslariak. "Egunerokotasuneko gauzei buruz hitz egiten dugu, baita sentimenduei buruz ere. Nahiko gaztetxoak gara, eta gure gauzei buruz hitz egiten dugu".



Zuriñe Hidalgo eta Fran Urias 'Hasiera' diskoaren aurkezpenean. HESIAN TALDEA

Kultur etxearen estalopearen intimitatean egindako saioa

'Estalopeko hotsak' zikloaren bigarren emanaldia egingen dute Fran Urias eta Zuriñe Hidalgo abeslariak

ETXARRI ARANATZ

Garilaren 4ean mustu zuten Estalopeko hotsak Etxarri Aranazko kultur ziklo berria. Udako arratsaldeetan emanaldiak eskaintzeko sortu zuten zikloa Etxarri Aranazko Udako Kultur zerbitzuak eta Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak. Gainera, protagonistak artista etxarriarrak dira. Hortaz, Xabier Artieda aktoreak mustu zuen zikloa *Everybody needs Heroes!* ikuskizunarekin, eta datorren ostegunean, garilaren 18an, Fran Urias Hesian taldeko kide etxarriarrak Zuriñe Hidalgo abeslariarekin kontzertu akustikoa eskainiko du.

Akustikoa

Fran Urias eta Zuriñe Hidalgo kontzertu akustikoa eskainiko dute datorren ostegunean, garilaren 18an, 20:00etan, kultur etxeko estalopean. Urias etxarriarrak aitortu du urduri dagoela. "Etxean jotzea berezia da. Lagunak, familiakoak eta etxe-koak daude". Presioa nabaritzen duela esan du: "lagunak oso kritikoak dira".

Hesian taldeko bi kideak ohituta daude horrelako kontzertuak ematera, izan ere, *Hasiera* disko berriaren aurkezpena emanaldi akustikoen bira batekin egin zuten. "Berziak izan ziren. Kontzertua baino hitzaldi musikatuak deitu genien". Disko berriko abestiak jotzen zituzten, baita zaharrak ere. "Intimoak ziren". Kontzertu akustikoetan, beraz, intimitate hori bilatzen dute.

"Instrumentuen laguntza ez dagoenez, zerbait gehiago eman behar duzu". Jendearekin egoteko emanaldiak zirela esan du Uriasek.

Etxarri Aranatzen egingo duten kontzertu akustikoan hama-bost bat abesti joko dituzte. Disko berrietik hainbat joko dituzte, berria delako, baita bertsioren bat joko dutela ere esan du Uriasek. "Intimitate hori bilatzen saiatuko gara". Jendearekin txantxetan ibiltzeko aukera gehiago izango dutela aitortu du. Gainera, "beti komentatzen dugu zerbait, idatzi genuen une jakinari buruz hitz egiten dugu, edo gaiarekin eta herriarekin bat egiten duenean komentatzen dugu...". Hala ere, Etxarri Aranazko kontzertuan "musikak protagonismo" gehiago izango duela esan du Uriasek. "Oraindik ez ditugu abestiak aukeratu. Betiko eztabaida izaten da. Niri abesti batzuk gustatzen zaizkit, eta berari beste batzuk".

Akustikoak egitea gustatzen zaie, lekua "ongi hautatzea" dela gakoak dio Uriasek: "inoiz tokatu zaigu akustiko bat egin behar izatea festa giroan eta ez du bat egiten. Jendea dantzatzeko gogoei dago, eta guk ez dugu momentu horretan hori eskaintzen". Emanaldi lasaiak direla azaldu du Uriasek, eserita ikustekoak. "Hori da plana". Hortaz, Estalopeko hotsak zikloan jotzean lekuarekin eta giroarekin "asmatu" dutela uste du: "formatua eta lekua egokiak dira".



Atzapar Rock taldea. ARTXIBOA

Atzapar Rock taldea, Berri Txarrak-en lagunak

Berri Txarrak-ek Kobetamendin eginen duen kontzertuaren parte izanen dira sakandarrak

SAKANA

Atzapar Rock taldea oso gaztea da. Duela hiru urte inguru sortu zen eta taldekideak musikan hazten ari dira. Iaz sanferminean jotzeko aukera izan zuten, Iruñeko Akelarre elkartearen rock txapelketan bi sari jaso zituzten eta lehenengo diskoa kaleratu zuten. Orain, urrats berri bat emanen dute bere ibilbidean: uztailaren 14ean Berri Txarrak taldeak Kobetamendin eginen duen emanaldiaren aurretik Ahotseneako Zaleen txokoa ariko dira.

Deialdi irekia egin zuen Durangoko Azokako Ahotsenea guneari. Berri Txarrak-en kontzertuaren aurretik jotzeko zortzi talde edo bakarlarri nahi zituzten. Atzapar Rock taldea aurkeztu, eta bertan izanen dira. 16:30ean joko du Sakanako taldeak. Zortzi taldeetako lehenengoa eta kontzertua Triangelu karpan izanen da. Bi oholtza izanen dira. Atzapar Rock Larra bideak, Diabolo Kiwi, Dukkha, Natali, Huts, Patxi&Run eta Iont taldeak ariko dira.

Ondoren, Berri Txarrak eta lagunak tartea izanen da Kobeta mendian, BBK jaialdian eginen den lekuan. Besteak beste, Anari, Drogas, Aiora Renteria eta Nerea Urbizu egonen dira.



Jose Ramon Anda eskultorea Bakaikuko tailerrean.

"Poesia guztia eskulturetan dago"

JOSE RAMON ANDA ESKULTOREA

Lantegi erakusketa mustu zuen Jose Ramon Anda eskultore bakaikuarrak Donostiako Kubo aretoan. Erakusketa osatuena dela esan du eskultoreak

Erkuden Ruiz Barroso BAKAIKU

Jose Ramon Anda bakaikuarraren ibilbide ia osoa biltzen duen erakusketa mustu zen Donostiako Kursaalako Kubo aretoan maiatzaren 13an. Abuztuaren 25era arte zabalik egonen da. Erakusketa Lantegi deitzen da eta 90 pieza baino gehiago biltzen ditu. 1973ko eskultura bat da erakusketaren zaharrena, eta azken aldian egindakoak dira berrienak. Egurrarekin sortutako piezak dira gehienak, handiagoak eta txikiagoak. Eskultura horietako batzuk eskultorearen Bakaikuko lantegian edo tailerrean zeuzkan, beste batzuk jabeen eskatu behar izan dizkie. Izan ere, tailerra bera erakusketa bat da. Bertan biltzen ditu eskulturak egiteko behar dituen tresnak, baina bururatzen zaizkion formen maketatxoak ere. Hainbat altzairu-eskultura ditu ere Bakaikun. Erakusketa guztiak bereziak direla dio eskultoreak, baina hau berezietariko bat da. Osatuena, behintzat, bada.

Zergatik deitu diozu Lantegi?

Javier Baldaren iradokizuna izan zen. Erakusketaren komisarioa da Balda. Lantegik esanahi bikoitza du. Lantegi bat tailerra da, baina gogoan dut gazte nintzenez Bakaikuko goiko edo beheko basoetan udalak zuhaitzak bota eta gero enkartean jartzen zituen. Eta Sanguzain edo Nabarzalen lantegi bat aurkitu dutela esaten zuten.

Zuraren transformaziotik sortutako eskulturak erakusten dituzu?

Erakusketan daude hainbat gauza. Erakusketa bat da non pieza zaharrena 1973. urtekoa den eta berriena egin ditudan azken gauzak. Esaterako, erakusketa honetarako bi pieza handi egin ditut eta nik bakarrik ezin nituen landu. Orduan, nirekin Juan Carlos Zelaia egon da. Pieza hauek multzo organikoa direla esan daiteke. Eskultura handiak, zuhaitz zaharrek egindakoak. Gaiak eta planteamenduak oso desberdinak dira.

Orduan, erakusketak ez du inolako haririk jarraitzen.

Eskultura multzoak dira.

Eta zeintzuk dira multzo horiek?

Lau gai daude. Nire lan lerroak primeran ikusten dira erakusketan. Alde batetik, multzo organikoa dago. Zahar, lehor zeudelako edo elurragatik erori diren zuhaitzak eta basoan gelditu diren enborrek egindako piezak dira. Enborrek egindako lehenengo pieza 1980ko hamarkadako da, eta azkena duela lau edo bost urte egin nuena. Gero beste lan lerro bat maketak dira. Batzuetan pieza handiak egin aurretik maketak egiten ditut. Ideiak maketa horietan garatzen ditut. Baina gerta liteke ideiak bukatzea eta

maketa hori jarraitzea zentzurik ez izatea. Beste batzuk denborarekin hartzen ditut berriak eta moldakorrak direnez birpentsatzen dut eta bira bat ematen diot. Akordio batera iristen naiz eta pieza handia egiten dut. Beste batzuetan ez naiz nire buruarekin akordio batera iritsi, eta maketa bozetoa apurtzen dut. Nire lan egiteko modua da hori. Figurazio piezaren bat ere badago; erretratuak eta biluzi bat, esaterako. Eta, bukatzeko, plano gurutzatuak deitzen dutan gai bat.

Pieza zaharrena 1973koa da eta berriena gaur egungoa. Andaren atzera begirada bat da?

Eskulturak gaika multzokatu daude eta urteek salto egiten dute. Ez da ekoizpen lerrokatua. Ikuslearentzat hobe da horrela ikustea. Kronologikoki, bestela, ikuslea nahastuko zuen. Iruditu zaigu hobe zela gaiak egitea, lerro berdinean doazen eskulturaren gaiak egitea, eta elkar ukitzen duten hainbat gai batera jartzea. Pieza bakoitzak bere titulua eta sortze urtea du idatzita, interes gehiago duenarendako orientazio moduan.

LANTEGI

Nola sortzen dituzu enbor batetik sortutako eskulturak?

Eroritako zuhaitz lehorrek edo zaharrek egindako eskulturak dira. Enbor hutsak izaten dira normalean, eta batzuk bat-batean sortzen dira. Enborren

"NIRE LAN LERROAK PRIMERAN IKUSTEN DIRA ERAKUSKETAN. OROKORREAN, LAU GAI NAGUSI DAUDE"

zati handi bat egurra da, baina beti saiatzen naiz zerbait ateratzen piezaren bat egiteko. Normalean eskulturarekin elkar eragin dezakezu. Bertan sartu edo bertatik pasatu. Miracielo eskultura, esaterako, Segoviatik ekarritako zuhaitz batekin egin nuen. Parke batean erori zen eta ekarri genuen. Eskulturaren barrura sartzen zara eta barrutik gora begira daiteke. Nahiz eta aretoan, noski, aretoarekin sabaia ikusi. Besarkada eskultura bi pieza dira eta haien artean besarkada bat ematen ari direla dirudi. Eskulturak euskaraz izendatzea gustatzen zait. Ezustekoa eskultura benetan ezustean sortu zen. Udalak egurra banatzen du. Enbor zahar bat zen eta udaleko langilea motozerrarekin egurra egiten zegoen. Kasualitatez atera nintzen eta bat-batean ikusi nuen aukera bat zegoela. Gelditzeko eskatu nion. Eta orduan eskultura hau horrela atera zen. Lerro honetan egin dugun azkena Sartu ahal baduzu eskultura da. Oso pasabide estua dauka.

Orokorrean eskultura hauek handiak dira, ez?

Eskultura txikiak 89 cm ditu eta handienak 3 metro. Pieza gehienak 2 metrokoak dira. Espazio honek aukera ematen du erakusteko. Eta ekartzeko laguntza behar genuen.

Elkar eragin ahal izateko eskulturak egitea gustatzen zaizu.

Ez dira bakarrik hortik pasatzeko eta ikusteko eskulturak. Beste serie batean, adibidez, behetik pasatzeko eskulturak dira. Gurutzatutako planoak deitzen dio multzo honi. Atariaren besarkada, adibidez. Sartagudan jarri nuen ondoren. Baina erakusketan dagoena egurrez eginga dago. Bi plano daude eta plano horiek gurutzatzen dira. Sortzen den hirugarren dimentsio bat sortzen da, eta hor sortzen da eskultura. Eskultura hiru dimentsioetan garatzen da. Beste eskultura hau bezala. Insomnio gau batean bururatu zitzaidan. Iruñean pieza bat zegoen eta Zarautzen beste bat. Bi horiek dintel batekin elkartzea bururatu zitzaidan, eta hirugarren eskultura sortu nuen. Pasabide bat da. Askotan insomnioak ez dira oso produktiboak, beste batzuetan bai. Erlikebeak lantzea ere gustatzen zait. Garatu dudan beste gai bat, beraz, uki nazazu da. Lauki, borobil eta hiruki batekin egindako kon-

posizioak dira. Konposizio desberdinak egiteko aukera dit. Hiru elementu dira, eta mugi daitezke. Eduki guztiak oinarritzko formak dira. Baina eskua pasatzen duzunean testura desberdinak dira. Hiruki eta lauki primekin eta zilindroarekin egindako piezak ere egin ditut.

Pieza txikiak ere erakusten dituzu.

Handia izan nahi dut pieza multzoa da. Maketak dira. Altsasu eta Olazti artean dagoen eskulturaren maketa, adibidez. Kasu honetan, maketa hau handia edo heldua bihurtu da. Baina kasu gehienetan proposamenak dira eta ez dakit noizbait handiak izateko aukera izango dute edo ez. Idei bat obeliskoena izan da. Bertatik begiratzeko aukera ematen du. Erdi zabaldutako leihoak bailiran.

Erretratuak ere daudela aipatu duzu.

Unamunoren, nire emaztearen, amaren eta Picassoren erretratuak erakusgai daude. Biluzi bat dago ere, Madrilgo Arte Ederrak bukatu nuenean egin nuena.

LEIHOAK

Ateak eta leihoak zure eskultura askotan presente daude. Zergatik?

Paisaia egongo balitz begiradaren gonbidapena bat da. Batzuek pertsonak behetik pasatzen dira, eskultura handienetan. Beste batzuk, leihoak dituzte. Interesatzen zait eskulturarekiko elkar eragipen hori. Baina badago eskultura bat, Donostian erakusten duguna, eta zaharretarikoa dela, kubo bat dela. Kubo hori irekita dago eta ikuslea manipulatzera gonbidatzen du; pieza horrekin eskultura desberdinak egitera.

Nola sortu zen Lanteri erakusketa egiteko aukera?

Alzuzako Oteiza museoan erakusketa egin nuen. Duela bi urte garai honetan martxan zegoen. Baina pieza txikiagoak ziren. Izan ere, Alzuzan dagoen espazioa denbora-erakusketak egiteko pentsatuta dago. Hiru edo lau hilabetetako erakusketak egiteko. Beraz, espazioa txikiagoa da eta sabaia baxuagoak dira. Hor

sortu zen erakusketa hau egiteko ideia.

Zenbat denbora egon zarete presatzen?

Holako erakusketa handi batean eta hainbeste gauza desberdinekin zaila da artikulatzea. Gainera, 1973. urtetik gaur egun arteko piezak daude ere. Bere zailtasuna badu. Eta nik uste oso ongi ikusten dela dena.

Zure erakusketa hoberena da?

Dudarik gabe erakusketa osatzena da. Beti pentsatzen duzu azkena garrantzitsuena dela, baina hau berezia da. Hospitaleten egindako erakusketa ere handia izan zen, baina duela 10 urte izan zen. Denbora tarte honetan pieza berriak egin ditut. Kubon piezak ikusten dira espazio nahikoarekin. Piezen artean leku gehiago dago. Bilboko Arte Ederretan ere erakusketa egin nuen eta hori izugarria iruditu zitzaidan. Duela bi urte Alzuzan egin nuena ere, gainera, Oteiza museoan izan zen eta Oteiza ezagutzen nuenez oso berezia izan zen niretako. Baina hau berezia da Euskal Herrian ez dagoelako Kursaal Kutxa Kubo bezalako espaziorik. Eta espazioa oso garrantzitsua da. Pieza handiak oso ongi ikusten dira, pieza handienak 4 metro ditu eta sabaia 6. Beste aretoetako sabaia ere altuera egokian daude. Beste areto batean altzairuak eta alde figuratiboa daude. Areto bakoitzean gai bat dago, beraz, multzoka egiteko aukera izan dut ere.

Nola hartu du jendeak?

Behintzat iristen zaizkidan iritziak oso onak dira. Egongo da gustatu ez zaion jendea, noski. Baina horiek ez didate esango. Askotan gertatzen zait erakusketa batera joan naizela oso kritika onak izan dituelako eta oso ospetsuak direlako eta gero ikusten dudanean ez dit ezer esaten. Beste batzuetan bai. Baina liburuekin berdina gertatzen da. Gomendatzen dizute irakurtzeko eta iritzia indartzen duzu edo ez.

Bisitak ere egin dituzu. Bakaikuarrek egon ziren.

Ni konturatu naiz bisitetan eta erakusketa azaltzen dudanean oso prosaikoak naizela. Poesia guztia eskulturetan dago. Baina eskulturen deskripzioak eta definizioak egiteko oso prosaikoak naiz. Ez diot poesia asko botatzen. Beste batzuek nire lanari buruz hitz egiten dutenean bizitasun gehiago jartzen diote.



Donostiako Kursaalako Kubo aretoan dagoen erakusketaren gela bat. C. SUAREZ



Donostiako Kursaalako Kubo aretoan dagoen erakusketaren beste gela bat. C. SUAREZ



Sartagudako Memoriaren parkean dagoen Andaren 'Besarkadaren ataria'.

**"DUDARIK GABE
DONOSTIAKO LANTEGI
DA EGIN DUDAN
ERAKUSKETA
OSATUENA"**



DYAKO boluntarioak, sakandarrak tartean, Diputazio aurreko euren txokoa lanean. UTZITAKOA

"Sanferminak kaos kontrolatu bat dira"

Sakanako DYAK makina bat urte daramatza sanferminetan ezin eskertu daitekeen lan boluntarioa egiten. Gonzalo Montoya Serrano altsasuarra da horietako bat; Osasun-Larrialdi Teknikaria da, eta egunotan egiten duten lanaz aritu zaigu.

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

1 Noiztik DYAKO boluntario?

Aurten 24 urte egingo ditut boluntariotzan; hasieran Gurutze Gorrian hasi nintzen, eta duela 17-18 urte DYAN.

2 Sanferminetarako larrialdietarako gailu berezia nola antolatu da?

Koordinatzaileak biltzen dira, –aurten niri egokitu zait–, guztia planifikatzeko: sareko zerbitzuak, 112 larrialdi zerbitzua, babesgailu bereziak –txupinazoa, su artifizialak, zezensuzkoa, haurrenguneak...–. Babesgailu berezietan, txandaka egiten dugulan. Aurten, esaterako, egun bikoitietan Gurutze Gorrikoak aritzen dira; eta egun bakoitietan DYAKoak.

3 Entzierroetan ere?

Entzierroak Gurutze Gorrikoekin batera egiten ditugu. DYAK udaletxe atzealdean, Santiago plazan, postua jartzen du, beste bat Xabier kalean eta errefortzua. Postuez gain, anbulantziak daude, 5 guztira, eta entzierroko itxituren dauden boluntarioak; egunero DYAKo 35 boluntario inguru.

4 Sanferminetako larrialdi guztia koordinatzea zaila izango da.

Hau estresa da, baina koordinatutako estresa; kaosa da, baina kaos kontrolatua. Txupinazoak eztanda egitearekin batera lanean hasi eta guztiari erantzuten diogu; urteroko kontu berbera da.

5 Sakana DYAKo zenbat boluntario zaudete lanean?

Marta Barquilla Barroso, Jose Antonio Barquilla Pulido, Alfredo Zelaia Goikoetxea, Santi Saldaña, Juan Jose Calvo de la Fuente eta ni. Gure ohiko lanek uzten dizkiguten tarteetan etortzen gara; bakoitzak ahal duena ematen du.

6 Urtero larrialdi berberak artatzen dituzue? Erorketak, zauriak, koma-etilikoak...

Gutxien artatzen ditugunak koma-etilikoak dira, beste asistentziekin alderatuta: erasoak, erorketak, zauriak, traumatismoak, ebakiak... Navarrerriako iturria kendu zutenean, politraumatismoen asistentziek nabarmen egin zuten behera. Hau Wild Westa dela saltzen dute; edozein etorri eta nahi duena egin dezakeela, eta hori ez da horrela. Oraindik pedagogia lan handia dago egiteko, tour-operadoreek bereziki. Honek guztiak bere arauak ditu, bere segurtasuna; eta nahiz eta ez iruditu, Iruñea oso hiri segurua da sanferminetan. Polizia ugarik egiten dute lan: udaltzainek, foruzainek, guardia zibilak, polizia nazionalak... Horretaz gain, Frantziako eta Italiako poliziak daude eta Amerikako Enbaxadak ere poliziak bidali ditu. Eta Polizia Nazionalaren zaldi-unitatea ekarri dute. Segurtasun handia dago.

7 Eraso sexisten aurrean alda-keta nabari da?

Zalantzarik gabe. Nafarroako gizartearen kontzientziatuago dago; edozein motako eraso sexisten aurrean batasuna dago. Sanferminak guztien festak dira, guztiok errespetatu beharrekoak.

8 Nola doaz aurtengo festak?

Aurreko urteetako antzer. Txupinazoan bereziki beroak eragindako intzidentziak artatu behar izan genituen. Asistentzia gehienak, kopuruz, gauez gertatzen direla esango nuke: ebakiak, kolpeak, bihurrituak...

9 Denetarik pasadizoak gertatuko zaizkizue...

Denetatik! Txisparekin, alai dotozenekin barre asko egiten dugu, eta tarteka errespetu falta duen jendea dago. Denetarik dago, varieté hutsa da hau. Baina, oro har, jendea ongi portatzen da. Duela urte batzuk txupinazoan botilakada jaso zuen mutil madrildarra artatzea tokatu zitzaigun. Izugarri hunkitu gintuen.

10 Sanferminez gozatzeko aukerarik baduzue?

Bai, lana eta aisialdia tartekatatu behar dira; bestela jasanezina litzateke.

11 Zein mezu emango zenieke herritarrei?

Etor daitezela festara, ongi pasa dezatela, baina errespetatu dezatela. Guztien festa da, guztiok askatasunean ospatu beharrekoa. Eta jakin dezatela edozein arazo badute 112 larrialdietara deitu dezaketela, edo sanferminetan Diputazioan jartzen ditugun postuetan han gaudela.

+www.guaixe.eus

BAZKIDE ZOZKETA

GARILEKO SARIAK:

1. SARIA:
EUREKAI ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
DONOSTIAKO AQUARIUMA: SARRERA BANA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN